

Marino Lejarreta

Ottavio Bottecchia

Tom Simpson

Bernard Hinault

TROPEL AMAIGABEA

Txomin Perurena

Miguel Indurain



Gino Bartali

Gianni Bugno

Alejandro Valverde

Remco Evenepoel

Eddy Merckx

René Vietto

Henry Pelissier

Luis Otaño

Raul Perez Martinez

Claudio Chiappucci

Lucy Kennedy

Jacques Anquetil

TROPEL AMAIGABEA

Raul Perez Martinez

© Raul Perez Martinez

Lehen edizioa: 2023ko apirila

Azaleko argazkia: Suitzako taldea, Ferdi Kubler buru duela, 1949ko Frantziako Tourreko Donostiako etapa hasi baino lehen. Kutzateka.

Kontrazaleko argazkia: Claudio Chiappucci, 90eko hamarkadan Donostiako Klasikoaren irteeran. Raul Perez

Eskerrik asko era batean edo bestean liburu hau argitaratzen lagundu didaten guztiei.

ISBN: 978-84-09-49111-7

LG D 00321-2023

Fotokonposaketa, inprimaketa eta koadernaketa:

Michelena artes gráficas, S.L. - Astigarraga (Gipuzkoa)



Egileari buruz:

Raul Perez Martinez dut izena eta Parisen jaio nintzen 1976an, baina Donostian bizi izan naiz txiki-txikitatik. Informazio-zientzietan lizentziatua, hiriko herri komunikabideetan aritu nintzen 10 urtez (*Irutxulo* astekarian, *Irutxuloko Hitza* egunkarian eta *Gaztezulo* aldizkarian), eta 2011tik euskara-irakasle ari naiz Oarsoaldeko AEKn eta nagusiki Pasai Antxoko Txirrita AEKn.

Beste bi liburu argitaratu ditut: *Jacques Anquetil* (2012an) eta *Biba Coppi!* (2018an).



Irteera neutralizatua: Nork dauka Donostiako lehen maillot horia?	9
Parisko anaia odolberoak	13
Nicolas Frantz eta Ottavio Bottecchia	17
Tonin jakintsua	21
Koroarik gabeko errege txikia	23
Bartali eta Coppi; ezin gehiago eskatu	25
Langarikaren maratokia	31
Larunbatetan irabazten zuen txirrindularia	33
Zorionak, Jacqueline!	35
Bi oilarren arteko ezin-ikusia	37
Arenbergeko meatzaria	39
Aperitifa	41
Anquetil belaunikoz jarri zuen erraldoia	43
Luis Otaño, Coppiren antzera	45
Poulidor...bigarren	47
Gentlemanaren azken irribarrea	49
Rita Pavone zalea	51



Errenditu? Ez errepidean, ezta Urgull mendian ere!	53
Kolore horia betiko	55
Ezta apurrak ere	57
Kronometro madarikatua	59
Harrapakinak ihes egin zion	61
Kaimana gose etorri zen	65
Euskadiko Sei Orduetan purrustaka	67
Jose Rolando Ovando	69
Bulebarrean, puntual	71
Indurain, misil baten pare	73
Biba Gianni! Biba Claudio!	75
Alessandra, Jeannie eta Joane'	77
Kameleoia	79
Armstrongen hiru klasikoak	81
Egiatik Bulebarrera	85
Bilobei kontatzeko egun apoteosikoa	87
Inazio, gure patroia handia	89
Azken kilometroa: 'Cacaito' Rodriguez	91
Ehun urte, hamaika mugarri	93
Bibliografia	94





Urteera neutralizatua

Nork dauka Donostiako lehen maillot horia?

2019an Frantziako Tourrak maillot horiaren mendeurrena ospatu zuen. Zenbat istorio, zenbat anekdota jantzi prezia-
tuaren gainean! Hara non, horietako batek lotura estu-estua
du Donostiarekin. *Maillot jauneren* urteurrenaren harira,
Le Parisien kazetak luze eta zabal hitz egin zuen Jacques
Marinellirekin. Bizirik zeuden maillot horidunen artean zaha-
rra zen Marinelli, 94 urte zituen. Hain justu, Marinelli iri-
tsi zen horiz jantzita gurera 1949ko Tourrean, eta modu
berean atera zen bi egun geroago. Sasoi hartan, txirrindula-
riak herrialdeka aritzen ziren, baina Frantziako kasuan, bazen
talde bat baino gehiago eta Marinelli, txirrindulari gaztea –23
urte zituen– eta apala izanik, ez zegoen oilarren selekzioan,
baizik eta Ile-de-France xumean. Hala ere, Marinellik babak
eltzetik atera zituen urte hartako Tourrean eta sei egunez izan
zen sailkapen nagusiaren buruan. Donostiatik ateratako etapa
gogor askoa zen, eta egun hartan esan zion agur amets horiari.
Hala eta guztiz ere, hirugarren postuan bukatu zuen laster-



keta Parisen, Coppiren eta Bartaliren atzetik. Bada zerbait... Tour hartan jo zuen goia Marinellik, eta *Le Parisien* egunkariko elkarriketan gogora ekarri zuen ez zuela, jakina, Parisko garaipenarekin inoiz amestu, baina talde indartsuagoa aldamenean eduki izan balu, egun gehiago iraungo zukeela lehen postuan.



Jacques Marinelli, maillot horia soinean duela irratiarekin hizketan, 1949ko Tourrean Donostian. Kutxateka. Fotocar bilduma.

Marinellik goitizena ere bazuen: *Perikitoa*, bere taldearen maillota berdea zelako eta buruan eraman ohi zuen txanoa, berriz, horia. Eta komunikabideen arloan aitzindaria izan zen, bera izan baitzen egunez egun bere bizipenak egunkari batean kontatzen lehena –*L'Equipe*n, non bestela– Txirrindularitzan

bakarrik ez; behin erretiroa hartuta ere, arrakasta ondo-ondoan izan zuen Marinellik. Aurrena bizikleta-denda jarri zuen, eta ondoren, etxetresnak saltzeari ekin zion. Marketin-estrategia aparta erabili zuen: *Jacques Marinelli, maillot jaune du Tour de France* ageri zen dendaren atarian. Batek daki horregatik bakarrik izango ote zen, maillot horia jantzi izanagatik alegia, baina bizikleta utzita ere, aparretan ibili zen *Perikitoa*. Politikan ere jardun zuen; bere herrian, Melunen, alkatea izan zen.





Parisko anaia odolberoak

1924ko abuztuaren 7a. Data historikoa inolako zalantzarik gabe gure txirrindularitzarako. Euskal Herriko Itzuliak lehen pedalkadak eman zituen egun hartan, *Excelsior* egunkariaren bultzadapean. Euskal Herriko aurreneko kirol-egunkaria izan zen *Excelsior*, Jacinto Mikelarenak zuzenduta, eta 1931 arte kaleratu zuten. Bilbo-Gasteiz-Iruñea izan zen Itzuliaren lehen etapa. Bide luzearen hasiera. Ondorengo etapa, bigarrena, Iruñean hasi eta Donostian bukatu zen abuztuaren 8an, ostiralarekin. Probaren lehen urte hartan 38 txirrindulari atera ziren –tartean Jose Luis Miner hernaniarra– eta gainerako guztien gainetik bik bereganatu zuten zaleen arreta. Biek abizen bera zuten, anaiak baitziren: Henri eta Francis Pelissier.

Francisek irabazi zuen lehen etapa eta itzulia ia-ia erabakita utzi, ordu laurdeneko abantaila lortu zuelako. Bigarren etapan, lasterketa gurera ekarriko zuen etapan, Baiona, Donibane Lohizune eta Behobia atzean utzita, Donostiarantz abiatu ziren partaideak. Zazpikote batek tropela utzi zuen atzean eta zazpi ziklista horien artean sartu ziren Pelissier

anaiak, noski. Bukaera estua izan zen eta anaia zaharra, Henri, gailendu zen. 1889an jaioa, hamaika lasterketa garrantzitsu irabazi zituen: Lombardiako Itzulia, Milan-San Remo, Paris-Roubaix... Eta Euskal Herrira etorri baino urtebete lehenago, 1923an, denetan kuttuna: Frantziako Tourra.


Biharamunean atsedena hartu zuen Euskal Herriko Itzuliko tropelak, Donostian bertan, eta igandearekin, goizeko seietan, abiatu ziren txirrindulariak, Realaren orduko egoitzaren paretik. Francisek, lehen etapan erdietsitako abantaila baliatuta, itzulia irabazi zuen eta Henrik bigarren bukatu zuen. Azken etapa, Bilbokoa, irabazteko ahaleginak eta bi egin zituen Henri Pelissierrek, baina Simon Tequi herrikideak aurrea hartu zion azken unean. Henri sutan jarri zen etapa poltsikoratu ez izanagatik...

Parisko Bois de Boulognen eta Buffalo belodromoan trebatzen ziren nola Henri hala Francis eta odolberoak ziren, gero; ahoan bilorik gabeak. Biek ala biek zeresana eman zuten hilabete lehenago, izan ere, Tourra ustekabean utzi zuten, lasterketaren zuzendariarekin, Henri Desgrangerekin, eztabaida sutsua eduki eta gero. Sasoi hartan txirrindulariek jantzi berberekin hasi eta buka egin behar zuten etapa, nahiz eta askotan gau ilunean aritu behar ziren bizikleta gainean, eta hotzetik berora ordu gutxiren buruan igarotzen ziren. Adibide bat jar dezagun: bi maillotekin abiatzen baldin baziren hasierako hotzari aurre egiteko, bi maillot horiek soinean zituztela helmugaratu behar ziren. Bai ala bai. Pelissiertarrak erretxinduta zebiltzan arau hori zela kausa, eta lasterketa utzi zuten. Kitto. Pikutara. Lasterketa utzi izanaren zergatia azaldu zioten



Albert Londres kazetariari eta solasaldi haren ostean kazetariak idatzi zuen gerora txirrindularitzaren leloa, betirako gainera, bilakatuko zena: “Les forçats de la route”. Hots, errepideko esklaboak.

Francisek txirrindularitza utzi zuenean oso ibilbide oparroa izan zuen talde-zuzendari lanetan; hura izan zen Jacques Anquetilen lehen zuzendaria. Henri, ordea, 1935ean hil zen 46 urterekin. 1932an emazteak bere buruaz beste egin zuen eta 1935eko maiatzaren 1ean, orduko bikotekideak tirokatuta hil zen Henri Pelissier, gurean 1924ko abuztuaren 8an irabazi zuena.





Nicolas Frantz eta Ottavio Bottecchia

1926ko Euskal Herriko Itzulian sasoiko txirrindulari ospetsuena lehiatu zen: Ottavio Bottecchia italiarra; hots, 1924ko eta 1925eko Frantziako Tourreko irabazlea. Haren aurkari nagusia Itzuli hartan Nicolas Frantz luxenburgotarrak izan behar zuen.

Lehendabiziko etapan, Bilbo eta Gasteiz artekoan, Frantz nagusitu zen eta ondorioz, sailkapen nagusiko lehen postua lortu zuen. Biharamunean, Gasteiz eta Iruñea artean, Bottecchia izan zen indartsuena eta lehen postua kendu zion Frantzi. Hirugarren etapak ekarri zuen tropela gurera; 226 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten, Iruñetik abiatuta. Julien Delbeque belgikarrak irabazi zuen. Ustaritzen, gainerako txirrindulariek eztarria freskatzeko limonada eta garagar-doa edateko geldialdia egin zutenean, Delbecquek hanka egin zuen eta bakar-bakarrik helmugaratu zen. Bottecchiak jarraitzen zuen lehen postuan Donostiako etapa bukatuta. Azken saioa gurean hasi eta Areetan bukatu zen. Solluben gora, Franzek ikusi zuen Bottecchia erori egin zela eta eraso jo




zuen. Bottecchiak une horretan larri ikusi zuen bere burua, bi minutu eta hamar segundoko aldea zuelako...baina etapa irabazleak hiru minutuko gainsaria jasoko zuelako. Zeukana eta ez zeukana eman bazuen ere, Bottecchia koitaduari ihes egin zion Itzuliak.

Nicolas Frantzek 27 urte zituen Euskal Herriko Itzulia irabazi zuenean, baina bere garaipen handienak iristeke zeuden. Ondorengo urtean eta hurrengoan, Frantziako Tourra irabazi zuen eta bigarreanean, maillot horia egunero eraman zuen soi-
nean. Hasi eta buka. Tourra bigarrengoz irabazi zuen urtean, 1928. urtean, Itzulira etorri zen berriz ere, eta etapa garaipena poltsikoratu zuen.

Eta zer kontatu Ottavio Bottecchiari buruz? Igeltseroa zen ogibidez, baina Lehen Mundu Gerran erregimenduko kide zela, mezulari-lanak egin zituen eta eginkizun horretarako bizikleta erabiltzen zuen. Gerra amaituta hasi zen Bottecchia txirrindularitzan, 28 urterekin. Inoiz ez da berandu: 1926an Euskal Herriko Itzuliak bakarrik ez, Frantziako Tourrak berak ere iskin egin zion. Ondorengo urtean ezin izan zuen Euskal Herriko Itzulian mendekua hartu Frantzen aurrean; izan ere, 1927ko ekainean hil zen ziklista italiarra. Haren heriotza tragikoak zur eta lur utzi zituen mundu zabaleko ziklismozaleak. Italiako errepide bazter batean topatu zuten, konortea galduta, eta ospitalera eraman izanagatik ere, egun batzuk geroago zendu zen. Hasiera batean, trafiko-istripu batekin lotu zuten heriotza, baina urteen poderioz beste bertsio batzuk argitara atera ziren. Besteak beste, zabaldu zen nekazari batek haren mahatsak jaten harrapatu zuela *Friuliko igeltseroa* entre-

namendu bateko atsedenaldirik, eta makilkadaz hil zuela. Bada beste ikuspuntutik, are ilunagoa: makilkadaz hil zuten Ottavio gizajoa, bai, baina ez mahatsak lapurtzeagatik, baizik eta Benito Mussolini diktadorearen ideiei planto egiteagatik.





Antoine Magnek talde-zuzendari bide oparoa egin zuen, batez ere Louison Bobet eta Raymond Poulidorren gidaria izan baitzen 50eko eta 60ko hamarkadetan, hurrenez hurren, Mercier talde ahaztezinean. Handikotea zen Magne, eta bere janzkera ez zen oharkabea pasatzen: mediku-itxura zuen, bata zuria soinean agertzen zelako lasterketetan. Horrez gain, beti txapela buruan. Magnek nahi zuen bere txirrindulariek une oro jakitea bera non zegoen, eta haren trazak, zinez, asko laguntzen zuen...

Txirrindulariak begirada zorrotzez zuzendu baino lehen, ziklista izan zen 30eko hamarkadan. Frantziako Tourra irabazi zuen 1931n eta 1934an eta Munduko Txapelketa 1936an. Aurretik izan zen gurean: 1930eko Euskal Herriko Itzulian, hain zuzen ere. Lehendabiziko etapa, Bilbo eta Gasteiz artekoa, irabazi eta, ondorioz, sailkapen nagusiko lehen postua eskuratu zuen. Gasteiz eta Iruñea artean, Ricardo Montero izan zen etapa-garailea –bost urte lehenago Donostian Espainiako Txapelketa irabazi zuen– eta hark kendu zion lehen postua Magneri, behin-behinekoz.



Hirugarren etapan iritsi ziren txirrindulariak Donostiara. Iruñetik abiatu ziren eta eguneko ihesaldian sartu ziren Magne bera, Montero eta Moineau. Zorteak Magneren alde egin zuen, izan ere, bere iheskideen matxurengatik bakar-bakarrik geratu zen lasterketa-buruan. Baionatik igaro zenean 20 minutuko abantaila zuen, alajaina! Hala ere, azken kilometroak ez ziren errazak izan Magnerentzat, haizeak kontra jotzen zuelako. Azkenean, baina, eutsi zion eta garaile sartu zen Kursaaaleko helmugan.

Pozaren eta atsekabearen arteko muga lausoa da maiz, eta hortaz jabetu zen frantziarra gure errepideetan. Izan ere, etapa erabakigarrian, Getxoko Ibaiondo belodromoan bukatu zen etapan, Mariano Cañardo nafarrak itzulia kendu zion, gain-sariei esker. Magne lur jota geratu zen, porrota ezin sinetsi. Ezin irentsi. Antzeko sentipena izan zuen 1964ko Tourrean, ordurako taldeko zuzendaria zela, bere mutiko Poulidorrek maillot horia segundo gutxi batzuengatik ez zionean Anquetili kendu, Versailles eta Paris arteko erlojuz kontrako etapan...





Koroarik gabeko errege txikia

Bitxia da, gero, baina Frantziako zaleek gehien maite izan dituzten bi txirrindulariak ez zuten sekula Tourra irabazi. Ez zuen lortu Poulidorrek, ezta René Viettok ere. Viettok zale guztien bihotzak gatibatu zituen 1934ko Tourrean, izan ere, 20 urte zituela eta maldan gora erraz-erraz zihoalarik, etapa batean buelta erdia eman behar izan zuen bere talde-buruari, Antoine Magneri, bizikleta uzteko. *Le Roi René* goitizenez ezaguna izan zen harrezkero Vietto. Batzuetan lesioek eta beste batzuetan txakalaldiek Tourra irabaztea galarazi zioten.

40ko hamarraldiaren hasieran Bigarren Mundu Gerra zela-eta, lasterketa gutxi jokatu ziren eta Tourrak berak etena jasan zuen zenbait urtez. Gerra ankerrak ataka zailean jarri zituen hainbat txirrindulari, tartean Vietto; hala, bere bizikleta- etxerako, Helyett bizikleta-etxerako, lan egin behar izan zuen, bizimodua ateratzeko. 1942an Vietto Espainiako Vueltara etorri zen. Delio Rodriguezek irabazi zuen Donostiako etapa, Kursaalera zuzengunean. Biharamunean, atsedenez gozatu zuen tropelak. Ziklista batzuk itsasoa ikustera



hurbildu ziren; beste batzuek horrekin nahikoa ez eta bainua hartu zuten Kontxan, eta izan zen Parte Zaharreko tabernetan indarberritzeko asmoz murgildu zenik ere.

Uztailaren 8an, 06:30ean abiatu zen tropela Donostiatik Bilborantz, San Martin kaleko Internacional hotelaren paretik. Usurbil, Orio, Getaria, Zumaia, Deba, Elgoibar, Eibar, Gernika, Mundaka, Bermeo, Sollube mendatea, Mungia... Eguerdirako aurreikusita zegoen tropela Bilbora iristea, izan ere, arratsaldean beste etapa bati egin beharko zioten aurre. Lasterketaren buruan zihoazenak nahastu ziren Gernikara iritsi zirenean eta okerreko bidea hartu zuten. Atzetik zetozen Vietto eta Monzon bat-batean lasterketaren buruan geratu ziren. Handik gutxira, Monzon ez zen gai izan Viettori jarraitzeko eta frantziarrak bakarrik ekin zion Sollube mendateari. Vietto garaile atera zen Bilboko Galtzada Nagusian; bi minutu eta erdiko abantaila atera zion haren atzetik iritsitako hamar ziklisten taldetxoari. Tourra ez zuen irabazi, baina garaipen-zerrenda polita lortu zuen frantziarrak, batez ere Alpeetako Allos eta Vars mendeak biziki maite zituen *grimpeur* bikainak.

1949an Donostiara itzuli zen Vietto, urte hartako Tourra gurera iritsi baitzen, baina ordurako gainbeheran zegoen eta ezin izan zuen bere burua nahi beste nabarmendu.



Bartali eta Coppi; ezin gehiago eskatu

36ko Gerra aurreko azken Euskal Herriko Itzuliak Gino Bartali txapeldun italiar handia ekarri zuen gurera, 1935eko abuztuan. Garaipen gosez etorri zen Gino. Lehen etapak ihes egin zion –Egli suitzarra nagusitu zen–, baina bigarren eta hirugarren etapak irabazi zituen jarraian: Gasteiz-Iruñea eta Iruñea-Baiona, hurrenez hurren. Laugarren etapan iritsi ziren ziklistak Donostiara, bero saparekin. Baionatik abiatu eta Donibane Lohizune, Azkaine, Sara, Dantxarinea, Otsondo, Elizondo, Oronoz-Mugaire, Doneztebe, Sunbilla, Bera eta Iru-netik igaro ziren Donostiara heldu aurretik. Ibilbideak ez zuen tropela sakabanatu eta 26 txirrindulari etapa-garaipenerako lehiatu ziren esprintean. Bartalik hirugarren garaipena jarraian nahi zuen, eta onena eman zuen azken metroetan. Ez zen nahikoa izan, ordea. Sauveaur Ducazeaux Miarritzeko semeak aurrea hartu zion.

Biharamunean, Donostiako arantza ateratzeko asmoz edo, Bartali Donostia eta Bilbo artekoan nagusitu zen, eta horretaz gain, bere izena jarri zuen Euskal Herriko Itzuliko irabazleen



zerrendan. Dante Gianello herrikidea izan zuen hurbilen sailkapenean, 47 segundora.

Ginok handiak egin zituen ondorengo urteetan. Hala, Bigarren Mundu Gerrak haren eta beste ziklista askoren ibilbidea errotik moztu izanagatik ere, sasoitsu itzuli zen eta Tourra irabazi zuen 1948an. Urtebete geroago, Tourra Donostiara iritsi zen, batik bat Jose Gervais Dupoyren bultzadapean. *Monsieur* Cometekin batera, XX. mendearen lehen erdian gurean txirrindularitzari bultzada handia eman zion Gervaisek. Baionan jaio arren, urteak ziren gurean bizi zela Gervais Dupoy, eta bere ametsa egia bihurtu zen: munduko lasterketarik garrantzitsuena Donostiara heldu zen. Italiak talde indartsua osatu zuen hiruhortzarekin; hau da, Bartalirekin, Coppirekin eta Magnirekin. Hain zen talde indartsua, ezen lasterketa irabazteko faboritoak baitziren, baina jakina, oilar bat baino gehiago izateak arazoak ekarri ohi ditu oilategian. Coppik urte hartan Giroa irabazi zuen sekulako erakustaldia emanda, baina Tourra ez zuen batere ondo hasi. Saint-Malora bidean denbora asko galdu zuen sailkapen nagusian eta hain justu ere, eta tirabirak tirabira, Bartali izan zuen ondoan egun beltz hartako azken kilometroetan, amore eman ez zezan. Proba Donostiara iritsi zenerako –bederatzigarren etapa–, Coppi sasoi-puntua berreskuratzen ari zen. Donostiako etapa Caput frantziarrak irabazi zuen, baina mingain gaiztoek diote gau hartan ez zela giro izan Principe de Saboya hotelean; Dirudienez, Coppik Bartaliri jarrera erasokorregia aurpegiratu zion.

Euskal Herriko eta Espainiako txirrindularirik ez zen Donostian izan. Atera atera ziren Paristik ekainaren 30ean, baina



Fausto Coppi, 1949ko uztailearen 10ean, Frantziako Tourreko etapa hasi aurretik. Kutzateka Marin funtsa.

aurreneko etapetan proba utzi zuten. Kalapita ederra zegoen Espainiako taldean. Italiako, Frantziako edota Belgikako selekzioek ziklista gehiago izango zituztela kexu ziren eta, adibidez, italiarren gorpilak askoz ere hobeak, sendoagoak, zirela kritikatu zuten. Hala eta guztiz ere, garaiko izar asko ikusi ahal izan zituzten hiriko zaleek bertatik bertara. Coppiz, Bartaliz eta Magniz gain, tropelean zen Ferdi Kubler suitzarra. Sailkapen nagusiko bigarren postuan zen Kubler lasterketa gurera iritsi zenean. Urte hartako Tourrean ezin izan zuen *Le fou pédalant* goitizena zuen ziklistak –txirrindulari eroa– maillot horia jantzi, baina hurrengo urteko Tourra irabaziko zuen.

Jean Robic ahoberoa ere pelotoiko kide zen; 1947ko Tourra irabazi zuen frantziarrak. Eta Rik Van Steenbergen ezin aipatu gabe utzi. Klasikozale aparta zen, onena beharbada, eta urte hartan bertan Munduko Txapelketa irabazi zuen.

Testuinguru politikoa ere hizpide izan zen lasterketan. Frankismoa gaitzesteko asmoz, *France Tireur* egunkari komunistak Donostiako helmuga zeharkatzen azkenari dirusaria agindu zion etapa abiatu aurretik eta *L'Humanite* kazetak, hura ere komunistekin lerrokatuta, ez zuen berriemailerik bidali gurera.

Ez zen giro, beraz, baina hala ere, Tourrak, jakina, ikusmin izugarria piztu zuen. Parte Zaharreko Santa Maria elizan meza berezia egin eta gero –hiriko zaindaria den Koruko Amaren irudia jarri zuten tenpluan–, tropela Bulebarretik abiatu zen; Calvo Sotelo bulebarra zuen izena orduan. Irundik, Saratik, Kanbotik, Hazparnetik eta Mauletik igaro ziren eta Bartaliren eta Coppiren itzalean zebilen Magni Baionan gailendu zen eta maillot horia jantzi zuen. Liderra ez zen ezezaguna, izan ere, aurreko urteko Italiako Giroa eskuratu zuen. Frantziako taldearentzat, berriz, egun beltza izan zen: Louison Bobetek Os- kitz mendatea igotzen hasi aurretik etxerako bidea hartu zuen eta Bobeten lau taldekide *hors delai*, kontrola itxita, iritsi ziren helmugara. Bitxiena da haietako bat, Gauthier, izan zela Donostiatik abiatu orduko erritmoa bizitzen lehena... Alferrik omen zen Gauthierrekin aldeztu aurretiko estrategia finkatzea, erasotzaile petoa zelako; harekin tropelean ez zegoen bakerik. Egurra, egurra eta egurra. Bordele-Paris lasterketa amaigabea lau bider irabazi zuen Gauthierrek.



Gino Bartali 1949ko Tourrean, Donostian. Kutxateka Marin funtsa.

Tourrak epikotik asko izan zuen 1949an. Hala, Coppi eta Bartali elkarrekin iritsi ziren Briançoneko helmugara, Alpeetan, eta Coppik Bartaliri irabazten utzi zion, Ginok 35 urte bete zituen egunean. Biharamunean, Faustok eskuratu zuen etapa eta baita maillot horia ere. Behin betiko eskuratu ere. Hura izan zen Fausto Coppik irabazitako lehen Tourra.

1969an Gino Bartali Euskal Herrira bueltatu zen. Ez zen lehiatu, noski, baina Euskal Herriko Itzuliak omenaldi beroa eskaini zion. Urte hartan antolatu zuten berriro ere etxeko lasterketa nagusia 34 urteko etenaldi luzearen ostean, eta jakina, ordura arteko azken irabazleari, Bartaliri berari, gorazarre egin nahi izan zioten.



Langarikaren maratoia

Sasoi batean txirrindularitza-lasterketak amaigabeak ziren. Esate baterako, 300dik gora kilometroko etapak jokatu ziren Tourraren hastapenetan. Ziklistak egunsentian abiatzen ziren, ilunpetan, eta kasik egun osoa ematen zuten bizikletaren gainean. Espainiako Vueltan ere *maratoiak* egin ohi zituzten. 1948koan, Granada eta Murtzia artean 285 kilometro egin behar izan zituen tropelak eta Zaragoza eta Donostia arteko etapa 276 kilometro luze izan zen. Iruñean geldialdia egin zuen tropelak, baina hala eta guztiz ere, izugarrizko kilometro betekada. Loria Dalmacio Langarika Lizasoain otxandioararentzat izan zen egun hartan: 12 ordu eta 23 minutu behar izan zituen etapatzarra osatzeko! Kolosala. Lider zela abiatu zen Donostiarantz, eta jakina, etapa irabazita lehen postua mantendu zuen.

Hala eta guztiz ere, pozak gutxi iraun zion Dalmaciori. Hurrengo etapan Bernardo Ruiz espainiarrak kendu zion lehen postua. Langarikak bi urte lehenago, 1946an, Vuelta irabazi zuen, baina 1948an, Donostian etapa irabazi zuenekoan,



ezin izan zuen balentria errepikatu: laugarren postuan bukatu zuen. Itzal handiko ziklista izan zen Langarika, eta baita talde-zuzendari ere, bere esanetara lortu baitzuen Kas talde historikoak eta errepikaezinak, besteak beste, 1964ko Tourrean taldekako erlojupekoa. Jose Luis Miner txirrindulari ohiarekin harreman estua zuen Langarikak eta haren Donostiako dendara jo ohi zuen bizikleta konpontzera.






Larunbatetan irabazten zuen txirrindularia

1955eko Espainiako Vueltak berrikuntza aipagarria eduki zuen: urte hartan sailkapen nagusiko liderrari aurrenekoz maillot horia jarriko zioten, Frantziako Tourrekoa bezalakoa –Vueltako aurreko edizioetan txuria, laranja edota gorria izan zen lehen sailkatuaren bereizgarria–. Lasterketa irabazteko asmotan abiatu ziren Loroño larrabetzuarra, Bahamontes espainiarra, Fiorenzo Magni italiarra, *Flandesko lehoia*, eta Raphaël Geminiani frantziar ipurterrea, beste batzuen artean. Bilbo eta Donostia arteko 204 kilometroko etapa izan zen lasterketako lehena. Jateko eta edateko gunea pasata, Elgoibarren, Gilbert Bauvin frantziarrak hanka egin zuen tropeletik. Azkarate mendatearen gailurrean minutu eta 40 segundoko aldea zuen eta egurrean jarraitu zuen deabruak hartuta. Bidanian 3 minutu eta erdira emendatu zuen aldea. Lasterketaren azken zatian, haren atzetik zetozenak asko hurbildu zitzaizkion Bauvini, baina ez zen nahikoa izan: 34 segundoko abantaila zuela iritsi zen frantziarra Amarako zabalgunera. Indar guztiak ez zituen, antza, Donostiarako bidean xahutu Bauvinek, izan ere, biharamunean hiritik abiatu

eta Baionako belodromoan bukatutakoan ere gailendu zen, Jaizkibelen gora eguneko ihesaldian sartu eta gero. Ez omen zuen batere gogorik maillot horia erantzeko...

Lunèvillen jaiotako txirrindularia etapa-ehiztari aparta zen; horren adibide, Frantziako Tourrean irabazitako bostak. Donostian irabazi eta urtebetera gailurra jotzeko zorian egon zen: Tourrean bigarren bukatu zuen. Bauvin malapartatuak gerora aitortu zuen, etsipenez, bere kirol-ibilbideko garaipenik sonatuenak larunbatez lortu zituela. Donostiakoaz gain, astegun berean eskuratu zuen Tourreko etapa 1958an. Ez zen egunik aproposena, inondik ere, besoak altxatzeko. Sasoi hartan, egunkari gutxi kaleratzen zen igandeetan, eta hortaz, bere balentriek merezi baino oihartzun apalagoa eduki zuten komunikabideetan. Hori gutxi ez eta futbol-kontuek ere bigarren mailan utzi ohi zituzten txirrindularien ibilerak...





1956ko Espainiako Vueltako Donostiako etapan klasi-kozale handi baten izena ageri da: Rik Van Steenbergen. Ordurako birritan nagusitu zen Paris-Roubaixen eta Flandesko Tourrean. Milan-San Remon ere besoak jasotakoa zen eta baita ortzadar-maillota jantzitakoa ere. Coppi, Koblet, Kubler, Bobet... Horiekin guztiekin lehiatu zen hamaika lasterketatan.

Pobletek, tropeleko esprinter abilenetakoak, etxerako bidea hartua zuen lasterketa gurerantz abiatu zenerako, eta horrek bidea parez pare ireki zion Van Steenbergeni. Bidanian gora mugimendurik ez zen falta izan. Beste batzuen artean, Anton Barrutia iurretarra, Dotto frantziarra eta Bahamontes espainiarra mugitu ziren, baina tropela bat eginda iritsi zen Anoetara eta han, azken metroetan agertu zen Van Steenbergen zitala, beste guztiei aurrea hartzeko prest. Irabazlea pozarren mintzatu zitzaizen kazetariei etapa bukatu orduko: Jacqueline alabaren urtebetetzea zen eta hari telegrama bat bidaltzeko asmoa zuen, garaipenaren berri emateko. Van Steenbergen aseezinaren bosgarren etapa-



garaipena zen Vuelta hartan, eta beste bat erdietsiko zuen azken egunean.

Espainiako Vuelta hartako tropelean bazegoen ia-ia ohar-kabea pasatu zen txirrindulari bat: Roger Walkowiak. Ez da harritzekoa, oso ziklista apala baitzen. Dena dela, hilabete gutxi batzuk geroago bizitza irauliko zitzaion. Izan ere, ustekabea Frantziako Tourra irabazi zuen, ihesaldi batean abantaila handia pilatu eta gero. Hura izan da, beharbada, Tourraren historiako ustekaberik handiena.





Bi oilarren arteko ezin-ikusia

Rogers Baens belgikarrak irabazi zuen 1957ko Espainiako Vueltako etapa, Amaran. Dena dela, etapa-garaipena bigarren mailan geratu zen, bi oilarren arteko borroka gori-gori baitzegoen. Jesus Loroño bizkaitarra eta Federico Martin Bahamontes espainiarra ez ziren inoiz lagunak izan, nahiz eta askotan talde berean –Espainiako selekzioan– lehiatu. Are gehiago: lehia izugarria zegoen bien artean eta norgehiagoka horrek goia jo zuen 1957ko Espainiako Vueltan. Bahamontes ordurako Anquetilen, Gaulen eta enparauen aurkari zitalenetako bat zen, maldan gora deabruzko abiadan pedalei eragiteko gaitasunari esker. Baina Jesus Loroño ere bere onenean zegoen. Urte hartako itzulian Loroño indartsuago zegoen eta Bahamontesek ez zuen taldekidearen nagusitasuna onartu nahi izan. Zaragozako etapan Loroñoren alde jokatu izana leporatu zion *Toledoko arranoak* taldeko zuzendariari eta horren ondorioz, sesio latza izan zen bi txirrindularion artean.

Loroño lider abiatu zen Baionatik Donostiara bidean proba bukatzeko bi etapa falta zirenean, baina hasi eta gutxira



erori eta min hartu zuen. Lasai hartzeko paradarik, gainera, ez zuen, Jaizkibel zuelako zain tropelak, Hondarribitik igota. Bahamontesek eraso jo zuen eta nahiz eta tropela apurtu ez, bakerik ez zion eman Loroño taldekide minberari. Tropela Donostiatik igaro zen, Oriora eta Zarautzera bidean, eta azkenean, Baensek Tolosan ihes egin eta Donostiara bueltan gailendu zen. Loroñok, oztopoak oztopo, lehen postua mantendu zuen. Biharamunean, euripean abiatu ziren ziklistak Donostiatik Bilborantz. Meza entzun ondoren atera zen lasterketa, Erregina Erregentearen kaletik.

Loroñok irabazi zuen Espainiako Vuelta. Bahamontesek, bere aldetik, Frantziako Tourra eskuratu zuen bi urte geroago, baina ez zuen sekula irabazi Vueltarik. Hori bai, 1960an, Vueltan bertan, Donostiako etapa eraman zuen Toledoko igotzaileak, egundoko erakustaldia emanda. Atotxa futbol-zelaian jarritako belodromora iritsi zen 200 kilometro bakar-bakarrik egin eta gero. Pelotoia 12 minutura heldu zen.





renbergeko meatzaria

1958ko Espainiako Vueltako aurreneko etapa hirian amaitu zen. Pacheco espainiarrak irabazi zuen, baina horren gainetik, azpimarratzekoa da zaleek, Vueltako lehen eguna izanik, tropela oso-osorik, izar guztiak barne, ikusi ahal izan zutela: Loroño, Bahamontes, Van Looy, Nencini... Hain justu ere, Nencini italiarra izan zen lehen etapa hartako protagonistetako bat. Izan ere, *Mugelloko Lehoiak* erasora jo zuen Donostiara bidean, nahiz eta sasoi betean ez zegoen, eta bere zepoan erori zen; ezin izan zion tropelari eutsi azken kilometroetan. Beharbada askok, gehienek ez esateagatik, ez zioten erreparatuko Frantziako taldeburuari, Jean Stablinskiri, ez baitzen izarren multzoan sartzen. Poloniar jatorriko Stablinskiri morrontza-lanak egitea egokitu zitzaion bere kirol-ibilbidearen zatirik handienean, ia beti. Anquetilen mesedetan lana beltz egin behar izan zuen; ez alferrik, *Maitre Jacquesek* irabazitako bost Tourretan haren ondoan izan zen. Eta Anquetil ez zenean, Andre Darrigaderi esprintetan lagundu behar. Hori izan zen *Stab* zintzoaren patua. Baina Jean langile apartak merezitako ohorea jasotzeko aukera bat baino gehiago

izan zuen. Esate baterako, 1958ko Espainiako Vuelta hartan. Lanerditan, proba Euskal Herrira itzuli zen eta Bilbon amaitutako etapan Stablinskik Van Looyri –belaunean mina zuela utzi behar izan zuen proba– kendu zion behin betiko lehen postua. Espainiako Vuelta hura izan zen Stablinskiren garaipen handienetakoa. Lau urte geroago bere ibilbideari ginga jarri zion; Munduko Txapelketa irabazi zuen Italian.

Frantziako iparraldean, Arenbergeko meategian, lan egingakoa zen Stablinski, eta hain zuzen ere, berak proposatu zien Paris-Roubaix klasiko handiko antolatzaileei Trouée d'Arenberg galtzada-harri zatia lasterketan sartzea –probako inportateena da–. Gaur egun Roubaixeko estalitako belodromoak Stab izena du.





Soilik ziklista handiek ez. Txirrindularitzaren historian talde handiek ere badute tokia, eta horietako bat Saint-Raphaël da. 50eko hamarkadan iraultza gertatu zen txirrindularitzan, babesleak agertu zirelako. Fiorenzo Magni italiarraren ekimenez, Niveak talde bat babestu zuen eta horrek lurrikara eragin zuen. Frantzian hasieran ez zuten begi onez ikusi kanpoko babesle handi-mandien etorrera, poltsikoak bete diru, euren ziklistarik onenak gatibatuko zituztelakoan. Zalantzak zalantza, ez zen atzera bueltarik izan. Saint-Raphaël edaria izan zen Frantzian ospea lortu zuen lehen babesleetako bat. Ez alferrik Jacques Anquetilen taldea izan zen. 1959an Anquetilek ez zuen Espainiako Vueltan parte hartu, baina bere taldeak bai, eta kuadrilla apartarekin, gainera. Roger Riviere, Raphaël Geminiani, Gilbert Bauvin, Jean Brankart, Pierre Everaert eta Brian Robinson. Taldekako erlojupekoa jokatu zen gurean, Amarako zirkuituan. Saint Raphaelëk 13 minutu eta 45 segundo behar izan zituen bederatzi kilometroko ibilbide motza osatzeko, Rik Van Looyren Faema –gerora Merckxen taldeetako bat izango zena– baino hiru segundo



gutxiago. Etxeko taldeak, Kasek, irabazleak baino sei segundo gehiago behar izan zituen eta Coppiren Carpano 12 segundora sailkatu zen. Egun hartan, 15 eta 75 pezeta artean –haurrek, ordea, bost pezeta– ordaindu behar izan zituzten ikusleek ziklistak, Amaran, bertatik bertara ikusteko. Gauzak zer diren, ez Riviere, ez Geminiani, ez Van Looy, ez Coppi... Nahiz eta tropelean izar asko egon, 1959ko itzulia Antonio Suarez espainiarra nagusitu zen.





Anquetil belauniko jarri zuen erraldoia

Anquetil maisua zen erlojuz kontrako lehian. *Maitre Jacques*. Ez zegoen hura erlojupekoetan menderatuko zuenik. Baina zer litzateke kirola, tarteka-marteka aurreikuspen guztiak hankaz gora jartzen dituzten ezustekoak gertatuko ez balira? 1962ko Espainiako Vuelta Baiona eta Donostia arteko erlojuz kontrako etapan erabaki behar zen. Eta Anquetil, nola ez bestela, faborittoa zen. Bere taldekide batek, Rudi Altig alemaniar handikoteak ia bost minutuko aldea zuen. Hala eta guztiz ere, buruz buruko lehian alemaniarrek amore emango zuela uste zuten gehienek, baita bere taldekoek beraiek ere. Haatik, Altig ilehoriak eutsi zion. Are gehiago, erlojupekoa bera ere irabazi zuen bere taldeburuaren aurretik Atotxako futbol-zelaian jarritako behin-behineko belodromoan. Biharamunean, Anquetil erretiratu zen. Iturri ofizialen arabera, gaixorik zegoen eta herio batean egin zuen Lapurdi eta Donostia arteko bidea –82 kilometro, alajaina!–. Mingain gaiztoen arabera, aldiz, amorruiak bultzatu zuen Anquetil etxerako bidea hartzera. Taldekide batek gainditu izanak eragindako amorrazioak, zehazki. Bolada batean, Jacquesen eta Rudiren arteko harremana tirabiratsua

izan zen, baina Altig zintzo demonio aritu zen aurrerantzean denbora luzez Anquetilen mesedetan eta azkenerako adiskide ere bihurtu ziren. Donostiatik oso gertu, Lasarten, Munduko Txapelketa irabazteko zorian izan zen Altig 1965ean, baina bigarren postuan geratu zen, Simpsonen atzetik. Munduko Txapelketa horren ostean, Altigek aitortu zuen Euskal Herriko talde batean eman zitzakeela hurrengo denboraldiko pedalkadak, Fagor taldean hain zuzen ere, baina azkenean alemaniarrek Moltenirekin fitxatu zuen.

Urte batzuk geroago Anquetil Donostiara itzuli zen. 1969an, bere azken urtean, Euskal Herriko Itzulian aritu zen, Bic taldean, eta lider jarri zen bigarren etapan. Hirugarrenak ekarri zituen txirrindulariak gurera. Jacquesek ez zuen arazo handirik izan lehen postua mantentzeko beste belodromo batean, Anoetakoan, bukatutako etapan eta Itzulia eskuratu zuen. Hura izan zen bere azken garaipen handia. Oroitzapen ona gordeko zuen Anoetaz. Ez, ordea, Atotxaz.



Luis Otaño, Coppiren antzera

1964. urtea txirrindularitzaren historiara pasatu zen Anquetilen eta Poulidorren arteko norgehiagoka mitikoagatik. Puy de Dome mendatea elkarri pega eginda igo zuten eta Pou-Pouk aurkaria oso-oso estu hartu bazuen ere, Normandiako ilehoriak bosgarren urtez irabazi zuen Tourra. Beste era batean esanda, Anquetilen beste garaipen batengatik, edo Poulidorren beste atsekabe batengatik igaro zen urte hura ziklismoaren historiara. Baina gauza gehiago gertatu ziren. Esate baterako, Poulidorrek bere kirol-ibilbideko lehen eta azken itzuli handia irabazi zuen hilabete batzuk lehenago: Espainiako Vuelta. Bere kontrario nagusia proba horretan Luis Otaño oreretarra izan zen. 30 urterekin, bete-betean zebilen Otaño, baina hala ere, ez zen taldeko liderra, ordura arte ez baitzuen bere burua nabarmendu itzuli handietan. Vuelta hartan, baina, sailkapen nagusia lehiatu zuen, hein handi batean ikaragarria egin zuelako Iruñea eta Donostia arteko etapan, ezin hobeto ezagutzen zituen errepideetan barrena. Oso adi ibili zen egun hartan Luis. Etapa abiatu bezain laster, Poulidorrek jo zuen eraso eta Otaño gurpilari itsatsi zitzaion.

Poulidorren saiakera ezerezean utzi zuen tropelak, noski. Otxoa kate motzean lotu beharra zegoen.

Kilometro batzuk aurrerago, 11 txirrindularik egin zuten aurrera eta tartean zen berriz ere Otaño. Izpegi mendatea atzean utzita, Aginan gora beste hamarrak atzean utzi zituen. Mendate horren gainean 15 segundoko aldea besterik ez zuen, baina jaitsiera gaiztoari herio-gose ekin eta bere atzetik zebiltzanek ez zuten gertuago ikusiko etapa osoan. Agur. Aritxulegin tartea handitu zuen eta bakar-bakarrik iritsi zen Anoetako belodromora. Bitxikeria moduan, belodromora sartu zenean, urduritasunak jota akaso, kontrako norabidean eman zuen itzulia Otañok. Pasadizoak pasadizo, minutu bat geroago iritsi zen Barrutia iurretarra eta egun hari esker, ia-ia nahi gabe, lasterketa irabazteko borrokan sartu zen ziklista orerettarra. Prentsaren arabera, itzuliko etaparik ikusgarriena izan zen Otañok irabazitakoa. Coppi handiak askotan egin zuen bezala, urrutitik jo zuen Otañok, ausart, aurretik zuenari beldurrik gabe. *Un uomo solo e al comando.*

Azkenean, baina, Otañok ezin izan zion lehen postuari eutsi eta Raymond Poulidorren eskuinean izan zen azken podiumean. Aurrerago, erdi txantxetan, Anquetilek Otañori galdera zuzendu zion: “Baina nola demontre irabazi dizu Poulidorrek?”. Bi urte geroago, are garaipen sonatuagoa eskuratu zuen Otañok: Frantziako Tourreko Privas- Le Bourg D’oisans etapa irabazi zuen, Alpeetako magalean.



Olatuaren aparretan zegoela gailendu zen Raymond Poulidor Donostian, 1964ko Espainiako Vueltan. Aurreko urtean lehen itzuli handia irabazi zuen, Espainiako Vuelta bera, Luis Otaño errenteriarraren aurretik, eta Tourrean inoiz baino estuago hartu zuen Anquetil arerio handia. Beraz, 65ean aurreko urte oparoa berdindu edo hobetzeko asmoz zebilen Poulidor, baina ezin izan zuen Vuelta bigarren urtez jarraian irabazi. Sikiera etapa garaipena lortu zuen, Baiona eta Donostia arteko erlojupekoan; 61 kilometroko etapa izan zen, eta tartean Ibardineko gaina igo behar izan zuten. Esan daiteke Poulidorrek ustekabea ez zuela urte hartako Vuelta irabazi, bere taldekide batek etxeratu baitzuen: Wolfshohl-ek. Alemaniarra ezustean jarri zen lider, alde handiarekin gainera. Poulidorrek irabazitako erlojupekoan ere bikain aritu zen Wolfshohl eta bigarren sailkatu zen. Raymond den hitzetan, etaparik gogorrena izan zen Atotxan bukatutakoa, Pajares eski estazioan amaitu zen mendiko etapa bera baino latzagoa.



Hilabete gutxi batzuk geroago, Frantziako egunkariak, eta zale askok ere noski, espero zuten urte hartan, behingoagatik, Poulidor Tourrean nagusitzea –Anquetil ez zen lehiatzekoa beste helburu batzuk zituelako buruan–, baina orduko hartan ere, Poulidorrek ezin izan zuen *maillot jaune*-a eraman etxera; Felice Gimondi italiarrak irabazi zuen.





Gentlemanaren azken irribarrea

29 urterekin, zakua bete garaipen zuen Peugeot taldeko Tom Simpson ingelesak: Flandesko Tourra, Milan-San Remo, Lombardiako Giroa, Bordele-Paris, Paris-Niza... Horrekin nahikoa ez eta non eta Lasarten Munduko Txapelketa irabazi zuen 1965ean. Baina klasikoak eta egun gutxiko lasterketak ez ziren nahikoak *Major Tom*-entzat. Frantziako Tourra begiz jo zuen, obsesio bihurtzeraino. Anquetilen garaia joana zen, eta Durhameko gentlemanak maillot horia nahi zuen kosta ahala kosta. Horretarako utzi zuen bere jaioterria gaztetan eta Britainiara joan zen, Tourrera gerturatzeko. Tourra irensteko.

Tourrera bidean, 1967an Espainiako Vueltan aritu zen. Ez zuen sailkapen nagusia lehiatu, baina klase handiko ziklista zen eta Euskal Herriko bide gorabeheratsuak gogoko zituen. Hala, Munduko Txapelketa bera ez ezik, Eibarko Bizikleta probako etapa ere irabazitakoa zen urte batzuk lehenago. Hortaz, gozatu ederra hartu zuen Espainiako Vueltako Gasteiz eta Donostia arteko etapan, ia irteeratik hanka egin baitzuen tropeletik Granellekin eta Chappelekin batera, eta Elgeta,

Azkarate eta Bidania igo ostean, bi iheskideei nagusitu zitzaaien Anoetako belodromoan. “Tourrak horrelako koskak izango balitu, nahiz eta asko izan, hainbatetan irabaziko nuke!”, bota zuen Simpsonen helmugan. Frantziako Tourra beti buruan. Baina Simpsonen ez zuen Tourrik irabazi. Are gehiago, Donostian altxatu zituen azkenekoz besoak. Izan ere, urte hartako Tourrean, Mont Ventoux mendi gaiztoa igotzen ari zela zerraldo erori zen. Bero sapak eta aurrez hartu omen zituen anfetaminek lurrera bota zuten Simpson, Donostia maite zuen txirrindulari irribarretsua.





Espainiako Vuelta azken txanpan iritsi zen Donostiara 1968an. Luis Santamaria espainiarra nagusitu zen Anoetako belodromoan, eta berarekin batera, lore-sorta eskuan hartuta, Felice Gimondik eman zuen ohorezko itzulia, bera baitzen liderra. Anquetilen argia ordurako ia zeharo itzailita zegoen, eta italiarra tropeleko izar distiratsuena zen. 1965eko Tourra, Anquetil ondorengo lehenengo Tourra, irabazi zuen Gimondik eta baita 1967ko Giroa ere. Hain justu, frantziarra izan zen hiru itzuli handiak irabazten lehena eta Gimondi bigarrena izateko bidean zen. Ardita markako bizikleta batean lehen pedalkadak emandako ziklista eroso aritzen zen nonahi: aldapan gora, erlojuaren kontra, jaitsieretan... Aurkariekin behin baino gehiagotan kirol-legez eta dotore jokatu izana ere goraiatzan da haren biografietan. Belodromora iritsita, kazetari batek lasterketari buruz ez ezik, bere zaletasunei buruz ere galdetu zion Salvarani taldeko txirrindulariari. Musika modernoa atsegin zuela erantzun zuen Felicek, eta bere abeslari kutuna herrikide bat zuela gaineratu: Rita Pavone. Turinen jaioa, musikan ez ezik,



zineman ere lan egin zuen Pavonek eta 60ko hamarkadan puri-purian zegoen.

Biharamunean, Donostiatik ez, Hernanitik abiatu zen lasterketa erabaki behar zuen etapa: Tolosa arteko erlojupekoa: 65 kilometro Goizuetako errepidean barrena, Ezkurra eta Urto mendateetan zehar, eta sei txirrindulari minutu baten baitan. Azkenean, pronostikoak bete egin ziren eta Gimondik etapa irabazi eta itzulia erabakita utzi zuen. Tolosa eta Bilbo arteko etapa paseotxoak izan zen berarentzat eta tropel osoarentzat. Ondorengo urteetan, Gimondik garaipen-zerrenda handitu zuen (Giroa 1969an, Munduko Txapelketa 1973an, hainbat klasiko handi...), baina are garaipen gehiago lortzea galaraziko zion erraldoi batekin egin zuen talka: Eddy Merckxekin.

Pedalei emateari utzi zionean, txirrindularitzari lotuta jarraitu zuen Gimondik eta Mercatone talde historikoko buru ere izan zen. Bertan nahiko harreman mikatza izan zuen Italiak emandako azken txirrindulari mitikoarekin, Marco Pantanirekin.





Errenditu? Ez errepidean,
ezta Urgull mendian ere!


1969an Euskal Herriko Itzulia lozorrotik atera zuten, eta bide batez, punta-puntako parte-hartzea lortu. Besteak beste, Anquetil eta Poulidor. Eta Txomin Perurena. Eta Gabika. Gino Bartali bera ere Euskal Herriko Itzuli hartan ere izan zen kaleko jantzita; antolakuntzak omendu zuen Gino paregabea bera izan baitzen ordura arteko azken Itzuliko irabazlea, 1934koa hain zuzen ere. 69ko lasterketara bueltatuta, Jacques Anquetil bigarren etapan lider jarri zen, baina ondorengo etapetan frantziarrari ez zioten bakerik emango. Lehen postua lortu eta biharamunean, Iruñea eta Donostia arteko etapan, Jaizkibelgo maldetan, Poulidor izan zen tropelari iskin egin ziotenetako bat. Eta ziklista frantziarrarekin batera, Fagor taldean zebilen espainiar gazte bat abiatu zen: Luis Ocaña. Artean izango zenaren printza batzuk baino ez zituen erakutsi Ocaña beroak, baina igo-tzaile bikaina zela jakina zen. Eta egun hartan, hura gailendu zen Anoetako belodromoan. Profesionaletan Euskal Herrian lorturiko lehen garaipena izan zen hura. Aurretik, afizionatuetan, Bidasoa Itzulian etapa garaipena lortu zuen txirrindulari espainiarrak. Bideak ederki asko ezagutzen zituen, gero...



Bi urte geroago, 1971n, sasoi betean zegoela etorri zen Euskal Herrira Ocaña eta jaun eta jabe izan zen. Itzulia bukatu bezperan, Tolosa eta Donostia arteko erlojupekoa irabazi zuen eta garaipen hari esker sailkapen nagusia ere eskuratu zuen urte hartan, Poulidor eta Migel Mari Lasaren aurretik. Bere urterik oparoenetakoa izan zen, dudarik gabe. Frantziako Tourrean inoizko erakustaldirik handienetakoa eman zuen Orcieres Merlettera bidean, Merckx erraldoiari 15 minutu kenduta. Haatik, egun gutxi geroago Mente mendate gaiztoa jaisten, zeruak eta lurrak bat egin zuten egunean, errepide lokaztuan irrist egin eta eroriko larria izan zuen. Une hartan bukatu zen Ocañarentzat Tourra. Baina hura ez zen erraz belaunikatzen zen horietakoa, eta 1973an errenkadan irabazi zituen Euskal Herriko Itzulia eta Frantziako Tourra. Erakustaldiari erakustaldi.

Frantziako Tourra irabazi eta urte erdira Donostiara itzuli zen Ocaña, urtarrilaren 19an Urgullen jokaturako ziklokrosean parte hartzera. Ingurua jendez lepo bete zen Tourreko irabazle distiratsua aurrez aurre ikusteko. Eta baita errepideko munduko txapelduna txalotzeko ere. Izan ere, Felice Gimondi italiarra ere -Bartzelonan jantzi zuen ortzadar maillota hilabete gutxi batzuk lehenago- lehiatu zen. Urgullen gora eta behera ikusi zituzten zaleek beste hainbat txirrindulari; Txomin Perurena, besteak beste. Hiruron artean Perurena izan zen onena egun hartan, seigarren postuan bukatu baitzuen. Gimondi 11. postuan sailkatu zen eta Ocaña, azkenik, 17.ean.





Jose Maria Errandonea irundarra hori kolorearekin lotuko da betirako, bera izan baitzen Frantziako Tourreko maillot hori preziatua janzten lehen euskal herritarra. 1967ko Tourreko lehen etapa, sei kilometro eskaseko erlojupekoa, irabazi zuen. Sasoi betean iritsi zen Tourrera eta oso abila zen erlojuz kontrako lehian –Erromako Olinpiar Jokoetan ere aritu zen 1961ean eta Espainiako txapeldun izan zen jazarpen-proban Donostian bertan–, baina inor gutxik espero zuen bera izatea azkarrena aurreneko etapan. Zoritxarrez, ezin izan zuen luza-roan gozatu maillot horia, izan ere, ipurdiko zauri malapartatu baten erruz erretiratu zen. Urtebete lehenago, 1966an, beste maillot horia, Espainiako Vueltakoa, jantzi zuen.

Hain zuzen ere, Espainiako Vueltako azken aurreko etap-pan gailendu zen Donostian, Fagor-Mercier taldeko kide zela 1970ean. Faboritoek hurrengo eguneko erlojupekoa zuten buruan, sailkapen nagusian aldaketak eragingo zituelakoan. Hori horrela, Gasteiz eta Donostia artekoa abenturazaleentzako egun aproposa izan zen. Tolosara iritsitakoan,



Errandoneak eta Migel Mari Lasak aurea hartu zioten trope-
lari eta handik gutxira, irundarra bakar-bakarrik geratu zen
lasterketaren buruan. Helmugara 14 kilometro geratzen zire-
nean minutu bateko abantaila zuen, eta azken kilometroetan
are gehiago handitu zuen: bi minutu eta erdiko aldearekin iri-
tsi zen Anoetako belodromoan betirako horiz jantzita gogora-
tuko dugun txirrindularia.





Txapeldun handi batek erretiroa hartzen duenean, hauxe izaten da ohiko galdera: urte asko beharko ote dira hura bezalakorik ezagutzeko? Horixe bera gertatu zen Jacques Anquetilek txirrindularitza utzi zuenean, 60ko hamarraldia-
ren bukaeran. Eta ez, ez ziren urte asko pasatu behar izan Normandiako txapeldunari lekukoa hartuko zion ziklista agertu arte. Are gehiago, Anquetilen azken urteetan belgi-
kar gazte bat mugarik gabeko gaitasuna erakusten hasi zen: Eddy Merckx. 1973ko Espainiako Vuelta lehiatu zuenerako, garaipen zerrenda benetan oparoa zuen: Milan-San Remo kla-
sikoa bost aldiz, Tourra lau bider, Giroa hirutan, Munduko Txapelketa birritan... Urte hartan Tourra ez lehiatzea era-
baki zuen eta Vueltara gogotsu joan zen. Probak interes han-
dia piztu zuen, Merckx-Ocaña buruz buruko lehia gori-gorian zegoelako, batez ere 1971ko Tourrean Ocaña, Merckx men-
dean zuela, lurrera erori eta erretiratu zenetik.

Vueltako lehen etapan, Calpen jokatuako erlojupeko labu-
rra irabazi eta lider hasi zen Merckx. Hasiera-hasieratik kolpea



mahai gainean. Hurrengo etapetan beste zenbait txirrindularik eduki zuten lehen postuan izateko ohorea, baina 11.ean, kitto. *Kanibalak* behin betiko hartu zuen liderraren maillota eta inork ezin izan zuen estu hartu. Azken etapak Hernani eta Donostia lotu zituen; 10,5 kilometroko erlojupekoa. Ordurako dena erabakita zegoen, baina, jakina, Merckxek su bizian egin zuen ibilbidea eta etapa irabazi zuen. Lehia estua izan zuen taldekide batekin, Roger Swertsekin; hura ere iaioa zen erlojuz kontrako lehian. Baina Eddyk ez zion taldekideari –belgikarra hura ere– irabazten utzi. Ezta apurrak ere. Azken podiumean, goi mailako bi ziklista izan zituen ondo-ondoan: Luis Ocaña bigarren sailkatu zen eta Thevenet frantziarra, hirugarren. Ocaña ez zuen lortu sekula Merckx mendean hartzea itzuli handi batean. Espainiarrak irabazi zuen urte hartako Tourra, baina belgikarra ez zen lehiatu. Thevenet frantziarrak, ordea, galaraziko zion Merckxi Tourra seigarren aldiz irabaztea Donostiako podiumean elkarren aldamenean egon eta bi urtera, 1975ean, hain zuzen ere.



Kronometro madarikatua

1974ko Espainiako Vueltak ikusmin handia piztu zuen. Merckx ez zen lehiatu, baina Luis Ocaña eta Jose Manuel Fuente *Tarangu* espainiarrak, Bernard Thevenet frantziarra, Migel Mari Lasa oiartzuarra edota Joaquim Agostinho portugaldarra parte hartzekoak ziren. Maiatzaren 12an hirian barrena jokatu beharreko 35 kilometro pasatzeko erlojupekoan erabakiko zen sailkapen nagusia. Orduko hartan, bigarren mailako protagonista izan zen Ocaña. Benetako lehia *Tarangu* espainiarraren, Migel Mari Lasa oiartzuarraren eta Joaquim Agostinho portugaldarraren artean izan zen. *Tarangu* iritsi zen lehen postuan eta bera zen itzulia eskuratzeko hautagai nagusia. Migel Mari Lasa oiartzuarra bigarren postuan zen minutu eta erdira eta Agostinho hirugarren postuan zen bi minutu eta erdira. *Tarangu* eta Migel Mari, Migel Mari eta *Tarangu*. Bata edo bestea. Zirt edo zart. Usteak erdi ustel, baina. Agostinhok berebiziko erlojupekoa egin zuen eta bete-betean sartu zen itzulia irabazteko lehian. Ezer izatekotan, gogorra zen Agostinho. Arroka bezain gogorra. 1971ko Tourrean, Luis Ocañak Orcieres Merlettera bidean egindako balentria nabarmendu zuten

hedabideek, baina Agostinhok laguntza aparta eskaini zion espainiarrari, nahiz eta orduko hartan taldekideak ez izan.

1974ko Vueltako azken etapara itzul gaitezen: ustekabe handia eman zuen Agostinhok. Hegan egin zuen, benetan, eta Anoetako belodromoan sartu zenean denbora aparta eginda, itzulia irabaz zezakeela konturatu zen. Migel Mari Lasari aurea hartu zion sailkapen nagusian eta *Tarangu* besterik ez zen falta belodromoan sartzeko. Agostinhoren bihotz-taupadak azkartu ziren bat-batean. Taupa-taupa. Garaiko kroniken arabera, belodromoko harmailak gainezka zeuden, eta isiltasuna zen nagusi, zaleek ez baitzekiten zeinek eskuratu behar zuen azkenean lasterketa. Esatariak berak ere Agostinho jo zuen irabazletzat, baina berehala zuzendu eta azkenean, *Taranguk* irabazi zuen Vuelta 11 segundoko aldeari esker. Agostinho koitaduak bigarren postuarekin konformatu beste erremediorik ez zuen izan, baina handik aurrera, arreguraz, esan zuen egun hartan kronometratzaileek huts egin zutela eta akats hark kendu ziola, bortizki kendu ere, Espainiako Vuelta. Etapa garaipena sari apala izan zen egun hartan portugaldarrarentzat. Zakurraren putza...

Atsekabeak atsekabe, Agostinhok hamaika lasterketatan jo eta su jarraitu zuen, eta bereziki sonatua izan zen 1979ko Frantziako Tourrean lortutako etapa garaipena. Non eta L'Alpe D'Huez mendatean irabazi baitzuen. 1984an, 41 urterekin, oraindik bizikleta gainean jarraitzen zuen, baina zakur bat gurutzatu zitzaion Portugalgo Itzulian. Eroriko larria izan zuen eta ez zen onik atera; Maiatzaren 10ean hil zen. Maiatzean galdu zuen Espainiako Vuelta eta maiatzean joan zen.





Harrapakinak ihes egin zion

Ehiztari fina zen Txomin Perurena, Oiartzungo Altzibar auzoko semea, Xabier Leteren gelakide izandakoa. Mundu zabaleko hamaika txokotan altxatu zituen besoak, 150etik gora garaipen lortu baitzituen 1963tik 1979ra. Eta jakina, gurean ere nagusitu zen. Euskal Herriko Itzulian bi bider irabazi zuen Donostiako etapa. 1970ean, laukote batekin egin zuen aurrera Perurenak, tropela atzean utzita: Gandarias, Gomez del Moral, Janssen eta Labourdette. Janssen eta Labourdette, baina, zula-tuengatik atzean geratu ziren –Oiartzun eta Martutene arteko errepidea oso gaizki zegoen–. Gauzak horrela, Perurena, Gandarias eta Gomez del Moral iritsi ziren ihes eginda belodromora, eta han Perurena azkarrena izan zen.

Bi urte geroago, 1972an, Jose Antonio Gonzalez Linares izan zen jaun eta jabe Euskal Herriko Itzulian. Hasi eta buka. Txomin Perurena Gonzalez Linaresen taldekidea zen Kas talde ahaztezinean eta oiartzuarrak Donostian bukatutako etapan zainketa-lanak egin behar izan zituen, halabeharrez. Hala, Jaizkibelen gora liderra ataka zailean jar zezakeen



Castellok erasoia jo zuenean, Txomin haren gurpilera itsatsi egin zen. Dena dela, Castellok ez zuen amore eman eta, hori horrela, aurrera jarraitu zuten biek. Tipi-tapa. Belodromora iritsi zirenean, Txomin freskoago zegoen, Castellok baino indar gutxiago xahutu zuelako bidean, eta jakina, sast! Esprintean nagusitu zen. Etapa Perurenarentzat eta azken sailkapena Gonzalez Linaresentzat. Perurenak berak aitortu zuen etapa eta gero ez zegoela harro bere jokabidearengatik, alegia Castellori ihesaldian lagundu ez izanagatik, baina tira; garai-pena zakura.

Haatik, 1975eko Espainiako Vueltari buruzko oroitzapen garratza du Perurenak. Oso garratza. Nahiz eta txirrindulari azkarra izan, aldapan gora ere moldatzen zen eta Espainiako Vueltako sailkapen nagusia lehiatu zuen. Azken etapara, Donostian jokaturako erlojupekora, lehen postuan iritsi zen Perurena. Miguel Mari Lasa –hura ere oiartzuarra– bigarren postuan zen 57 segundora eta Agustin Tamames espainiarrira hirugarrena zen minutu eta 19 segundora. Hortaz, ezus-teko handirik ezean, Kas taldeko ziklista batek, Perurenak edo Lasak, eramango zuten itzulia. Oiartzungo ziklista baten-tzat izango zen azken garaipena. Saioak ikusmin handia piztu zuen eta etapa-bukaera belodromoan ikusteko sarrerak hiriko Bidasoa eta Antonio tabernetan eta belodromoko txarteldegian bertan jarri zituzten salgai. Txirrindulariek euripean osatu zuten 31,7 kilometroko ibilbidea eta Tamamesek sorpresa eman zuen: 14 segundogatik kendu zion lehen postua Perurenari. Lasak hirugarren postuan bukatu zuen proba, 34 segundora. Txomin Perurenak gerora aitortuko zuen belodromora sartu zenean sekulako isiltasuna sumatu zuela zaleen

aldetik eta horregatik konturatu zela bereak egin zuela. Perurenarentzat, Lasarentzat eta, oro har Kas taldearentzat, pena, eta Tamamesentzat eta Super Ser talde sortu berriarentzat izugarrizko poza.

Gauzak zer diren: 1970ean, Espainiako Vuelta azken erlojupekoan kendu zion Ocañak Tamamesi eta bost urte geroago, biak talde berean zeudela, Ocaña izan zuen lagun Tamamesek azken egunera arte. Egia esateko, Super Ser taldeak ez zuen oso ibilbide oparoa egin, baina 1975eko maiatzaren 11 hartan Donostiako Parte Zaharretik gertu, Nauticon, behar bezala ospatu zuten Tamamesen garaipen handia. Ustekabeko galanta.



Kaimana gose etorri zen

Ez zuen Bernard Hinault bretoiak Anquetilen xarma, *charme*-a, baina bere garaipen zerrenda *Maitre Jacquesena* baino oparoagoa da, egia esan. Hinault da Frantziako inoizko txapeldun handiena. 1978an, 24 urte zituela, parte hartu zuen Espainiako Vueltan eta erakustaldia eman zuen. Bost etapa poltsikoratu zituen, itzulia irabazi zuen eta horrenbestez, belodromoan jantzi zuen azken maillot horia.

Proba hartako bukaera istilutsua izan zen, giro politikoa gori-gorian zegoen eta. Azken aurreko etapa, Amurrio eta Donostia artekoa, laburtu behar izan zuten antolatzaileek eta Zarautzen hasi eta belodromoan bukatu zen saioa Txomin Perurenak irabazi zuen, esprintean. Hori gutxi balitz bezala, ondoren jokatu beharreko 31 kilometroko erlojupekoa baliorik gabe utzi zuten, zale batzuk zenbait txirrindulariri oldartu zitzaizkielako. *Kaimanak* –izengoiti hura zuen Hinaultek– urtea Frantziako Tourra estreinakoz irabazita biribildu zuen. Gerora, beste lau Tour, Italiako hiru Giro eta Espainiako beste Vuelta bat eskuratu zituen. Txirrindularitzako patroia izan zen, harik eta lesioek eta Greg Lemond izeneko gazte estatu-batuarrak belauniko jarri zuten arte.

uskadiko Sei Orduetan purrustaka

1984ko urtarrilean, San Sebastian eguneko danbor-hotsak itzali orduko, beste burrunba bat hasi zen: Euskadiko Sei Orduena. Hilaren 21ean jokatu ziren. 1979ko San Sebastian egunean egin zituzten aurreneko aldiz eta 84 hartan, Jan Raas-Gerrie Kneteman bikotea nagusitu zen eta Urs Freuler bibotedun ahaztezinak eta Joop Zoetemelkek –1976ko Frantziako Tourreko irabazlea– bigarren postua erdietsi zuten. Tolosaldeko bikote batek, Avelino Perea-Modesto Urrutibeazkoa bikoteak, podiumeko azken koskara igotzea lortu zuen. Podiumera igo ziren hiru bikoteak alde batera utzita, belodromoan elkartutako zaleen begiradak Marino Lejarretarengana, Peio Ruiz Cabestanyrengana edota Guido Bontempi italiarrarengana zuzendu ziren. Baita Frantziako bi izarrengana ere: Bernard Hinaultengana eta Laurent Fignonengana. Hinaultek ordurako lau Tour irabaziak zituen –1985ean bosgarrena irabaziko zuen– eta belodromoan bertan altxatu zituen besoak 1978an Espainiako Vueltako garaile. Fignonek, berriz, Tourra irabazi zuen aurreko urtean eta beste behin etxeratuko zuen maillot horia



urte hartan bertan, Hinault bera eta gainerako guztiak hankapean hartuta.

Laurent Fignoni, Parisen jaiotako ilehoriari, *le professeur* esaten zioten, janzten zituen betaurrekoengatik, eta bere jenio gaiztoa ere ezaguna zen han eta hemen. Urte hartako Sei Orduetan, adibidez, sutan jarri zen; amerikarra proban lau ziklista erori ziren, Fignon tartean, eta txirringulari batzuei gehiegi arriskatzea eta arduragabe jokatzea leporatu zien. Tira, agian zorte txarra besterik ez zen izan, baina Fignonek 13 zenbakidun dortsala zeraman bizkarrean... Askoz alaiago atera zen egun hartan belodromotik Iñaki Perurenak 285 kiloko harria lehenengo aldiz jaso eta gero...

Laurent Fignonek bukatutako azken Tourra 1992koa izan zen, Donostiatik atera zena. Ordurako kolore guztietakoak ikusitakoak zituen. Garaipen handiak erdietsi zituen, eta baita atsekabe latzak ere; Lemonden aurka zortzi segundorengatik galdutako Tourra, kasurako. Bere azken Tourrean, Gatorade taldeko maillot berdea jantzita, Bugno taldeburuaren mesedetan lan egin behar izan zuen, baina hala ere, kasta berezikoa zen Parisko ziklista eta Vosgoetako etapa irabazi zuen Ballon d'Alsace mendatean gora tropela atzean utzita.





Jose Rolando Ovando

1991ko abuztuan, zaleok Indurainek bigarren urtez jarraian Klasikoa irabaztearekin egiten genuen amets. Gainera, nafarra Frantziako Tourra aurrenekoz irabazi berritan etorri zen gurera. Indurainek ez zuen Klasikoa irabazi urte hartan. Tourreko podiumean haren ondoan izandakoetako batek altxa zituen besoak: Gianni Bugnok. Italiarraren erakustaldia ez zen izan larunbat eguzkitsu hartako ikuskizun bakarra. Izan ere, ohi bezala, gauean kriteriuma egin zuten Bulebarrean. Guztira, 25 gautxori aritu ziren Bulebarreko *belodromoan* biraka, 23:00etan hasita. Zaleon gozamenerako tartean ziren, besteak beste, Indurain bera-Tourreko maillot horiarekin aritu zen-Bugno, Chiappucci, Peio Ruiz Cabestany, Marino Lejarreta eta Pedro Delgado. Hasteko puntuaketa-proba jokatu zen, eta Indurainek berak puntu gehien pilatu zituen esprintetan.

Ondoren, kanporaketa-proba jokatu zen. Apurka-apurka tropeltxo txikitzen joan zen, helmugara iristen azkenak agur esaten baitzion lasterketari. Etxekoa, Peio Ruiz Cabestany, eta Guatemalako Rolando *Gigante* Ovando lehiatu ziren azken

buruz burukoan eta estu izan bazen ere, azkenean, Ovando atera zen garaile.

“Garaikurra etxean gordeta daukat. Egia da kriterium bat zela, baina txapeldun haiei guztiei irabazi beharra zegoen!”, azaldu zuen elkarrizketa batean Ovandok. Guatemalako Txirrindularitza Federazioak gurera bidali zuen 1982an trebatu zedin, eta Gurelesa taldean aritu zen. Ziklista apala izan arren, sasoiko talde onenetan aritu zen Ovando; Reynoldsen aurrena, eta ONCEn ondoren. Euskal Herrian emandako urteen arrastoa ageri da hiru alaben izenetan: Haizea Ixchel, Ainoa Suquinay eta Nerea Ixmucané.

Hura izan zen Bulebarreko azken kriteriuma. 1992an ere egitekoa zen, baina arratsalde partean botatako euri jasa ikaragarriaren ondoren, bertan behera utzi behar izan zuten eta handik aurrera, ingurua berritzeko lanen ondorioz, ez zen berriro egin. Eta Rolando Ovando? 1993an, 30 urte zituela, utzi zuen txirrindularitza profesionala osasun-arazo batek bulztatuta –bere gorputzak ez zuen glukosa maila behar bezala errekupe ratzen– eta Euskal Herrian geratu zen familiarekin.

Bulebarrekoa ez zen izan Donostian jokaturako kriterium bakarra. Izan ere, 50eko hamarkadaren bukaeran, Amaran Nazioarteko Kriteriuma antolatu zuten. Hala, 1958ko abuztuaren 19an, zaleek, euripean, honako izar hauek ikusi zituzten: Gaul luxenburgotarra –Frantziako Tourra irabazi berritan–, Stanblinski frantziarra, Bahamontes espainiarra eta Favero italiarra. Zenbait euskal txirrindulari ere aritu ziren: Davoz eta Otaño oreretarrak, Zabaleta eta Arbelaitz oiartzuarrak, Urrestarazu anaia ataundarrak...





Marino Lejarretaren eta Donostiaren arteko harremana estua da Donostiako Klasikoari esker. Berrizko txirrindularia hirutan nagusitu zen gurean. 1981ean, lasterketa jaio zen urtean, bera izan zen Bulebarrean besoak jasotzen lehena, bero handiko egunean Teka taldeko maillotarekin. Handik urtebetera berriro gailendu zen. 1982koa denboraldirik oparoena izan zuen, gurean ez ezik Espainiako Vuelta eta Arrateko eta Montjuiteko igoerak ere irabazi baitzituen.

Lau urte geroago, 1986an, garaipena esku-eskura izan zuen, baina ez zuen lortu bere iheskidea zen Iñaki Gaston atzean uztea eta jakina, azken metroetan Gastonek, azkarra goa izanik, ez zuen hutsik egin. Amorruez eta etsipenez hartu zuen Lejarretak bukaera hura, jakina, baina ez zuen erraz amore ematen eta urtebete geroago, Caja Rural taldean zegoela, mendekua hartu zuen. Jaizkibelen ihes egin zuen tropeletik eta Angel Arroyok eta Fede Etxabek jo eta ke ari tuagatik ere, ez zuten Marino harrapatu. Errepidetik kanpora ere garaikurrik jaso da Marino Lejarreta hirian. Alde batetik,



Urrezko Danborra jaso zuen Xabier Albistur alkatearen eskutik 1991n eta Donostiako Klasikoaren antolakuntzak berak ere omendu zuen txirrindularitza utzi eta gero.





Indurain, misil baten pare

Greg Lemond estatubatuar irribarretsu eta harroak Tourra hirugarrenez irabazi zuen 1990. urtean. Euskal Herriko zaleek, baina, izan zuten pozik egoteko arrazoi bat baino gehiago. Marino Lejarretak Millaun etapa garaipena lortu zuen. Baita Miguel Indurain gazteak ere. *Perico* Delgadoren mesedetan lana beltz egin bazuen ere, Luz Ardidenen Lemond bera utzi zuen atzean azken metroetan Atarrabiako ziklistak. Tour hura sasoi betean bukatu zuen Indurainek eta handik egun gutxira Donostiako Klasikoan parte hartu zuen, Marinok bezala. Biak izan ziren lasterketako ziklistarik indartsuenak eta haien artean indartsuena Jaizkibelgo maldetan nafarra izan zen. Lejarreta atzean utzi eta bakar-bakarrik egin zituen Bulebarrerainoko azken 30 kilometroak.

1991n Indurainek Tourra lehen aldiz irabazi zuen eta 1992koa Donostiatik abiatu zen. Hortaz, Indurain maillot horiarekin eta 1 zenbakidun dortsala soinean abiatu zen. Hiru egunez, txirrindularitzaren epizentro bilakatu zen hiria. Izarren zerrenda, kasik amaigabea. Indurainen nagusitasuna ezbaian



jarri nahi zuten Lemond beteranoak, Bugno eta Chiappucci italiarrek, Leblanc eta Zulle gazteek... Zortzi kilometroko aitzin-etapan jendetza elkartu zen errepide-bazterretan. Ziklistak Alderdi Ederretik abiatu ziren, Antiguarantz jo zuten, *infernuan* buelta eman eta San Martin kaletik, Argentinan Errepublikaren pasealekuko helmugaraino, Victoria Eugenia antzokiaren pareraino. Indurain izan zen irteten azkena eta zaleen zoramenerako ordura arteko denborarik onena, Alex Zulle suitzar ezezagunak egindakoa, ondu zuen.

Biharamunean, Dominique Arnaud frantziarrak jaso zituen besoak Zurriola pasealekuan eta Zulle gazteak jantzi zuen mailloa. 22 urte zituenez, nekez ahaztuko du, gero, kankailu atseginak Tour hura. Dena dela, handik astebetera, Luxenburgoko erlojupekoan erakustaldia emanda jantzi zuen Indurainek maillot horia. *L'Equipe* Frantziako kirol-kazetak *La fusée Indurain* –Indurain misila– titularra erabili zuen biharamunean. Txirrindulari nafarrak irabazitako bigarren Tourra izan zen hura.



Biba Gianni! Biba Claudio!

Ez zuten elkarren antz handirik. Batak, Gianni Bugnok, bizikleta gaineke dotorezia erakusten zuen; bestea, Claudio Chiappucci, borrokarako grina. Ezberdintasunak ezberdintasun, 90eko hamarkadaren hasierako bi txirrindulari esanguratsuenak. Biak ala biak izan ziren Indurainen ondoan Tourreko podiumean, bai 1991n bai 1992an. Eta biek irabazi zuten Donostiako Klasikoa. Bugno 1991n nagusitu zen; bera bezain dotore esnatu zen eguna eta bakar-bakarrik iritsi zen Bulebar zaharrera Gatorade-Chateaux d'ax taldeko burua Jaizkibelen eraso-kolpea jota, hiru koloredun maillota soinean, Italiako txapelduna baitzen. Ihesean zetorrela jakin bezain laster, gurean oporretan zeuden italiar gazte batzuk Bulebarreko ostatuaren balkoira atera ziren pozarren. Txirrindularitzaren pasioa. Pedro Delgado segoviarra ia minutu batera helmugaratu zen eta Mauricio Fondriest italiarra –hura ere trebea zen oso egun bakarreko probetan, baina ez zuen sekula irabazi Donostian– igo ziren egun hartan podiumera Bugnorekin. Egun gutxi batzuk geroago ortzadar maillota jantzi zuen, Munduko Txapelketa irabazi zuen Alemanian. Urte hartan ere Euskal Bizikleta irabazi zuen Bugnok.



Claudio Chiappucci txirrindulari osoa zen. Bere taldea ere, ahaztezina: Carrera Jeans-Tassoni. Eta irudi bakarraren bidez deskribatu beharko bagenu? Jakina, besoak jasota, igotzaille onenaren maillot zuri-gorria soinean eta irribarrea ahoan. Non? Sestrieresen, noski, 1992ko Tourreko etapa nagusian. Itzuli handietan nabarmendu zen, bai, baina egun bakarreko lasterketetan ere bikain aritzen zen. 1992an, Alcalak irabazi zuen urtean, bigarren bukatu zuen Uboldoko mutilak Donostiako Klasikoa, eta ondorengo urtean besoak altxatu ahal izan zituen. Ez zen bakarrik iritsi, baina azken metroetako esprintean Faresin herrikidea garaitu zuen.





Alessandra, Jeannie eta Joane

1997ko urrian Munduko Txapelketak antolatu zituzten Donostian, eta frantziarrek uzta oparoa jaso zuten, zinez. Gizonezkoetan, Laurent Brochard nagusitu zen, ustekabea, errepideko lasterketan eta egun gutxi batzuk lehenago, Jalabert izan zen azkarrena erlojuz kontrakoan. Emakumezkoetan ere, frantziar bat nagusitu zen buruz buruko lehian, aski ezaguna zena: Jeannie Longo. Zakua bete garaipen zuen hirira etorri zenerako: Frantziako Tourra hiru aldiz, hamaika domina Munduko Txapelketetan eta Olinpiar Jokoetan eta beste hamaika lasterketatan irabazle. Ona zen gero. Hoberena, beharbada, nahiz eta azkenerako dopinaren itzalak haren ibilbidea lokaztuko zuen. Donostiako lasterketa gogoan izango du ziur aski Longok, estu-estua izan baitzen; bigarren postuan sailkatutako Zabirova errusiarrak baino segundo bakar bat gutxiago behar izan zuen frantziarrak ibilbidea osatzeko. Ozta-ozta... Zarautz hiribidetik abiatu ziren parte hartzaileak eta Añorga Txiki, Errekalde, Andoain, Urnieta eta Hernani zeharkatu ostean, Galarretan gora sartu ziren Donostian helmugara bidean.



Erlojuz kontrako borrokan, Longorentzat izan zen loria; eta Alessandra Cappellottorentzat, miseria. Nahiz eta faboritoen artean zegoen, hamargarren postuan sailkatu zen italiarra. Txapelaldun handiek, baina, nekez ematen dute amore, eta Cappellotto azkar-azkar zutundu zen erlojupekoan zaplastekoa jaso ostean: hiru egun geroago errepideko lasterketa irabazi zuen Antiguako Tolosa hiribidean. Hain zuzen ere, proba hartako sailkapenari erreparatuta, 39. postuan, Joane Somarriba izeneko ziklista ageri da. Podiumetik urrun ibili zen orduko hartan Somarriba, baina bizitzan esan ohi da pausoz pauso joatea komeni dela. Azkar eta ondo usoak egiten du hegan. Bizkaitarra Italian trebatu zen, *piano piano* gora egin zuen, eta berandu baino lehen balentriak ondu zituen: Italiako Giroa (1999an), eta Frantziako Tourra birritan (2000an eta 2001ean), besteak beste. *Chapeau*. Somarribak irabazitako bigarren Tourra, gainera, Bilbotik atera zen haren omenez. 1997an, Donostiako Munduko Txapelketa hartan, lehen postuetatik urrun ibili zen txapelaldun bizkaitarra, baina izar bihurturik itzuli zen hirira urte gutxi batzuk geroago; belodromora, Euskadiko Sei Orduetara, hain zuzen ere.

Frantziako telebistan duela urte batzuk Jeannie Longo elkarriketatu zuten, eta esan zuen garaipen-zerrenda oso luzea izanagatik ere, gehiegizkoa zela hari “monumentu” deitzea... Ez zuen, bada, pentsatuko Joane Somarribak Donostiako Munduko Txapelketara etorri zenean inoiz hala-
korik egingo ziotenik, baina horixe da Sopelako kiroldegia-
ren aurre-aurrean duena: monumentua.



Erori eta altxa. Behin eta berriz. Hori egin zuen Laurent Jalabert frantziarrak bere kirol-ibilbide osoan. Tourreko eroriko beldurgarriak ahoan eta aurpegian zauri larriak eragin zizkion. Esprinterra zen orduan eta hain justu, azken metroetan, ziztu bizian zihoala, argazki bat ateratzen ari zen gendarme batekin egin zuen talka Armentièresen. Esprinter izatetik itzuli handiak lehiatzera pasatu zen Jalabert, eta frantziarren itxaropen handienetakoa izan zen 1996ko Tourra irabazteko. Baina Indurain hondoratu zen etapan bertan, Les Arcsera bidean, hondoratu zen Jalabert ere. Mazameteko ziklista, baina, jaikiko zen zaplasteko hura jaso ostean ere. Tourra ez zuen inoiz irabaziko, baina urtebete geroago, Donostian lortu zuen Munduko Txapeldun izatea, erlojupekoan, Tolosa hiribideko helmugan. Izan ere, erlojuz kontrako lehian ere lehia-korra zen Jalabert. Onena ez, baina onenetakoa bai. Ibilbide guztietan.

Urte gutxiren buruan, itzuli handiak bazterrean utzi eta klasikoak jarri zituen jomugan eta tartean, Donostiakoa. Gazte-



gazterik, 1990ean, Indurainek irabazi zuen urtean, bigarren sailkatu zen Bulebar zaharrean, eta hamarraldi bat geroago besoak altxatuko zituen zaharberritutako Bulebarrean. Birritan, gainera: 2001ean eta 2002an. Bietan onenekin igaro zuen Jaizkibel eta Bulebarrean esprintean nagusitu zen. 2002ko Donostiako Klasikoa erretiro hartu aurreko azken

garaipen handitzat jo daiteke. Lasterketa hori ezin zen falta kameleoiaren garaipen-zerrendan, ezta gutxiagorik ere.



Laurent Jalabert, Donostiako Klasi-koaren irteeran, 1998ko abuztuaren 8an. Raul Perez.



Armstrongen hiru klasikoak


Lance Armstrongen izena ageri da Donostiako Klasikoaren palmaresean, estatubatuarra 1995ean gailendu zen. Tourrak ez bezala, Donostiako Klasikoak ez du Texasko ziklistaren izena ezabatu garaileen zerrendatik. Dena dela, beste bi urtetan ere ‘gailendu’ zela esan daiteke, beste era batean izan bazen ere. 1992an, Donostiako Klasikoa Armstrongentzat lehen lasterketa izan zen profesionaletan. Ekaitza beldurgarri batek Donostia osoa ilunpetan utzi zuen klasikoa izan zen hura, Raul Alcalá mexikarrak irabazi zuenekoa. Edo Armstrongek helmuga azken postuan zeharkatu zuenekoa. Nondik begiratzen den. Hotelerako bidea har zezakeen Armstrongek zeruak eta lurak bat egin zutenean, baina ez, ez zuen amore eman, eta Bulebarrera iritsi zen. Hura lehen *garaipena*. Harroputza eta ahoberoa zen Armstrong, eta gurera irabaztera itzuliko zela zin egin zuen egun zakur hartan.

Esan eta egin. Hiru urte geroago gailendu zen gurean. Baina gauzak zer diren, 1995eko abuztuko garaipenak aro bat itxi zuen ustekabea, nolabait esateko. Armstrongen *lehen*



garaiko azken garaipen handia izan zen. Handik gutxira berriro ere ilunpean murgilduko zen, 1992ko klasikoan bezala. Baina iluntasuna ez zuen ekaitzak eragin, minbiziak baizik. 1996ko udazkenean gaixotasunagatik txirrindularitza utzi behar izan zuen. Amildegira hurbildu zen, baina onik atera zen. 1998an eraldatuta itzuli zen, hiru asteko itzuliak lehia-tzeko moduan, eta 1999ko Tourra ustekabean irabazi zuen; 2000. urtean Donostiara itzuli zen klasikoan parte hartzera. Jaizkibelen lehiakor aritu bazen ere, ez zuen irabazi. Geroago etorriko zena ezaguna da: Tourra zazpi aldiz irabazten lehena izan zen Armstrong, baina dopin kontuengatik Frantziako Tourrarentzat ez da existitzen, fantasma bat izango balitz bezala. Ziurrenik, Armstrongen inoizko garaipenik handiena hauxe izan zen: minbizia jasan eta gero txirrindularitzara buel-tatu izana.





Lance Armstrong Bulebarrean, Frantziako Tourra irabazi eta egun gutxira, Donostiako Klasikoan abiatu aurretik. Raul Perez.



Egiatik Bulebarrera

Profesionalentzako lasterketak bakarrik ez. Badira gurean harrobiko txirrindulariei euren dohainak erakusteko aukera ematen dieten probak ere, hala nola, Egian hasi eta bukatzen den Zummy Saria. 1997an Alejandro Valverde izeneko txirrindulari murtziarrak Ametzagañako maldan irabazi zuen. Profesionaletan emandako urteetan egun bakarreko lasterketarako abilezia berezia erakutsi zuen Valverdek. Hala, adibidez, 2006an, Fleche-Wallone eta Lieje-Bastonge-Lieje irabazi zituen hiru eguneko tartean. Hirian jokatzeko den egun bakarreko proba nagusian, Donostiako Klasikoan, gauza bat zela edo bestea zela, ezin irabazi. 2008. urtera arte. Urte hartan, Egian irabazi eta 11 urtera, lasterketa maisuki gidatu zuen. Jaizkibelek galbahe lana egin zuen eta Donostiarantz azkar-azkar abiatu zen taldetxoan sartu zen espainiarra. Gizon bizkorra izanik, Bulebarreko zuzengunean erritmoa aldatu zuenean, iheskideek –tartean ziren Davide Rebellin, Paolo Bettini, Samuel Sanchez eta Denis Menchov bezalako *oilarrak*, beste batzuen artean– ezin izan zioten eutsi.

Sei urte geroago, zerutik eta infernutik igaro ostean –hamaika garaipen eskuratu bai, baina era berean lehiatu gabe egon zen bolada batean, bere izena dopin kontuetan nahastuta agertu zelako– Donostiako Klasikoak Igeldoko Bordako Tontorra aldapa tentea munduari erakutsi zion egunean, berriz ere irabazi zuen. Igeldo jaisten alde egin zuen eta aitaren batean igaro zen Kontxa pasealekutik, Zubieta kale-tik, Askatasunaren hiribidetik eta Ramon Maria Lili kaleetan zehar. Orduko hartan ez zuen esprintarik egin behar izan, besoak altxatzeko eta gozatzeko astia izan zuen murtziarrak. Egian bezala, Bulebarrean ere txapela jantzitakoa da Valverde.



Bilobei kontatzeko egun apoteosikoa

Egan Bernal Frantziako Tourra irabazi berritan iritsi zen Donostiara 2019ko abuztuan. Haren prentsaurrekoa, jakina, jendetsua izan zen. Nola ez, bada. Are gehiago kontuan hartzen badugu urtebete lehenago Mirakruz gaina jaisten ari zela eroriko larria izan zuela eta ospitalean aurpegia berregin behar izan ziotela. Lasterketa egunean, beste gazte batek bereganatu zuen arreta osoa: Remco Enevepoel. Txirrindularitzaren etorkizuna, adituen ahotan. Marka guztiak txikituko dituen txirrindulari belgikarra. Donostian egotea bazen nahikoa Klasikoa arretagune bilakatzeko. Baina lasterketak txiki utzi behar zituen aurreikuspen guztiak. Ibaeta eta Igeldo arteko bide aldapatsua lehen aldiz igo eta gero, larri antzean zebilen Remco gaztea, eta taldeburuarentzat bidoiak banatzen ibili zen. Azken kilometroetako borroka lehertzen zenerako, bere liderrari ez zitzaion ezer falta behar. Horretarako daude morroiak. Baina hara non, ustekabea, aurreko taldea bil eginda zegoenean, Remcok erasora jo zuen. Igeldora bidean, aldapan gora, sufritu zuen gazteak, baina tropelak ezin izan zuen harrapatu. Bakarrik iritsi zen Bulebarreko helmugara,

eta jakina, komunikabideek Evenepoel eta Donostia bera munduko mapan jarri zituzten biharamunean. Egunak, baina, askoz gehiago eman zuen, izan ere, goizean emakumezkoen lehendabiziko klasikoa jokatu zen eta Lucy Kennedy australiarraren balentria handia izan zen. Lasterketaren buruan bakar-bakarrrik zihoala gurpila zulatu zuen, eta horren ondorioz aurkariak atzeman eta atzean utzi zuten. Bereak egin zuela pentsatu zuen batek baino gehiagok une hartan, baina Kennedy gai izan zen aurretik zihoazen lehiakideak berriro harrapatzeko, atzean uzteko eta Bulebarrera bakar-bakarrrik iristeko. Herald Sun Tour etxeko lasterketarekin batera, Donostiakoa izan zen Kennedyren garaipenik handiena. Bilobei kontatzeko modukoa.





Inazio, gure patroia handia

Egun kutunak izango ditu Annemiek van Vleuten Herbeheretako txirrindulariak. Esaterako, urriaren 8a, bere urtebetetzea. 1982an jaio zen, Realak bigarren Liga Txapelketa irabazi zuen urtean, hain zuzen ere. San Inazio eguna ere atsegin izango du akaso. 2021eko uztailaren 31n irabazi zuen Donostiako Klasikoa, eguraldi makurreko jai-egunean. Gipuzkoako egun handian. Ordurako garaipen-zerrenda ezin opa-roagoa zuen van Vleutenek: Munduko Txapelketak, Munduko Kopa, Italiako Giroa, Olinpiar Jokoak, Emakumeen Nafarroako Klasikoa, Emakumeen Birako etapak, besteak beste. Hala ere, eta, garaipenak garaipen, egun hartan bertan aitortu zuen ilusioa egin ziola txapela etxeratzeak. Nola ez, Murgil tontorrean egin zuen aurrera van Vleutenek eta haren ondoan zihoazenek ezin izan zioten eutsi. Azken kilometroak bakar-bakarrik osatu zituen.

2022an ere dir-dir egin du Movistar taldeko txirrindulariak han eta hemen, baina izan da Donostiarekin lotzeko beste izen bat: Demi Vollering. Hura ere herbeheretarra. Emakumez-


koen Itzulian jaun eta jabe izan zen; probak hiru etapa izan zituen eta hirurak irabazi zituen 26 urteko ziklistak, azkena Donostian. Uztail bukaeran, Frantziako Tourrean aritu ziren nor baino nor Annemiek van Vleuten eta Demi Vollering. Beteranoenak, van Vleutenek, sekulako erakustaldia eman zuen mendiko etapa nagusian, lasterketaren buruan 80 bat kilome-

tro egin zituen eta. Biharamunean ere irabazi zuen probako azken etapa, eta bere balentria biribildu zuen. Demi Volleringek bigarren bukatu zuen. Tourra ere San Inazio egunean bukatu zen.



Annemiek van Vleuten, gainerako txirrindulari guztiak atzean utzita, Kontxako pasealekuan 2021eko Klasikoan.

Argazkilaria: Naike Ereñozaga.



‘Cacaito’ Rodriguez

Nelson Rodriguez kolonbiarra ez zen izan punta-puntako txirrindularia, baina 90eko hamarkadan bere burua nabarmendu zuen. Noiz eta bere herrikide ospetsuenek, Lucho Herrerak eta Fabio Parrak, erretiroa hartu berritan. Non eta Mortirolon. Ezin modu epikoagoan. Txirrindularitzazale askok betirako il-tzatuta izango dugun Giroko etapan. 1994ko ekainaren 5ean. Norekin eta Indurainekin eta Pantanirekin egin zuen aurrera *Cacaito* ttikiak eta Pantaniri jarraitzerik izan ez bazuen ere, bigarren helmugaratu zen. Handik pare bat hilabete eskasera goia jo zuen. Frantziako Tourra Val Thorens eski estaziora iritsi zen. Ez zen igoera gogorra; luzea, orde, bai. Oso luzea. Ia 30 kilometro maldan gora. Tropelari ihes egin zioten kolonbiarrak eta Piotr Ugrumov letoniar zitalak. Azken kilometroetan despistatuarena egin zuen *Cacaitok*, Ugrumovi ez zion txandarik eman, indarge zihoalakoan, eta azken metroetan iheskide eskarmentudunari ziria sartu eta etapa irabazi zuen. Errusiarra sutan jarri zen, eta biharamuneko etapa irabazita



Parisko podiumean Indurainen ondora igotzea lortu zuen. Val Thorenesen, ZG Mobili talde apaleko txirrindularia izan zen azkarrena, eta hura ere Donostian izan genuen, Klasikoan. Batio beza testu labur honek gurean izandako beste hamaika ziklista erdigunera ekartzeko... Hain da zabala tropela, ezen ez

den Bulebarrean sartzen. Txirrindularitzazaleon buruan, ordea, denak sartzen dira, mugarik gabe. Donostiako txirrindularitzaren historia txikiko datozen atalak idazteke daude...



Nelson 'Cacaito' Rodriguez eta liburuaren egilea Donostiako Klasikoaren irteeran, Bulebar zaharrean.

hun urte, hamaika mugarri

- 1924ko abuztuan jokatu zen Euskal Herriko Izulia lehen aldiz, eta lasteketaren bigarren etapa, hilaren 8an, Donostiara iritsi zen.
- 1935ean antolatu zuten estreinakoz Espainiako Vuelta eta maiatzaren 3an hirian bukatu zen laugarren etapa.
- 1949ko uztailaren 9an heldu zen Frantziako Tourra aurreneko aldiz hirira. Julien Cometen eta Jose Gervais Dupoyren bultzadapean etorri zen *Grande Boucle* Donostiara.
- 1958ko abuztuaren 19an jokatu zen Amaran, gaur egungo Madril hiribidean, I. Nazioarteko Kriteriuma.
- 1973an eta 1974an ziklokros-txapelketa egin zuten Urgullen.
- 1979ko urtarrilean Euskadiko Sei Orduak sortu zituzten. Festa handia izan zen urtetan, eta pistako txirrindularitzaz gain, besteak beste, herri-kirolek ere tarte zabala izan zuten belodromoan.
- 1981eko abuztuaren 11n Donostiako Klasi-koa antolatu zuten aurreneko aldiz.
- 1991ko abuztuaren 10ean jokatu zuten azken aldiz Klasikoaren osteko gaueko kriteriuma Bulebarrean.
- 1992ko uztailaren 4an abiatu zen Frantziako Tourra. Jaime Ugartek eta bere taldeak lortu zuten Frantziako Itzuliaren *Grand Depart* Donostiara ekartzea.
- 1965ean eta 1997an Munduko Txapelketak antolatu zituzten Donostian. 1965ean, errepideko lasterketen helmuga Lasarte-Orian jarri zuten; 1997an, berriz, Antigua, izan ere, Bulebarra zaharberritzeko lanak bete-betean zeuden.
- 2019ko abuztuaren 3an Emakumezkoen Donostiako Klasikoa egin zuten lehen-dabiziko aldiz.



Javier Murgialday, 1992ko uztailaren 6an, Bulebarrean, Frantziako Tourreko bigarren etapa hasi aurretik. Etapa hura irabazi zuen ordu batzuk geroago Aguraingo ziklistak, Paben. Raul Perez.

 Bibliografia

Liburuak

Pierre Pelissier (1997) *La legende de Jacques Anquetil*. Rageot Éditeur, Paris.

Christian Laborde (1998) *Duel sur le volcan*. Albin Michel, Paris.

Raymon Poulidor - Jean Paul Brouchon (2009) *Poulidor Le Pouli-dor*. Jacob-Duvernet.

Hainbat egile. *Retratos legendarios del Ciclismo*. Edimat, Madril.

Javier Bodegas eta Juan Dorronsoro. *Historia de la Vuelta al País Vasco*.

William Fotheringham (2007). *Put me back on my bike. In search of Tom Sipmson*. Jellow Jersey Press.

Manuela Ronchi, Gianfranco Josti (2012). *Un hombre en fuga. Glo-ria y tragedia de Marco Pantani*. Cultura ciclista.

Jean-Paul Olivier (1997). *Réne Vietto, La Véridique Historire*. Glénat.

Ramon Etxezarreta eta Arritxu Iribar. *Marino Lejarreta, hamalau ahaleginetako poza*. Elkar eta Ciclismo a fondo.

Lucy Fallon, Adrian Bell. *¡Viva la Vuelta! 1935-2012* (2013). Cultura Ciclista.


Albert Londres. *Los forzados de la carretera. Tour de Francia 1924*. Melusina.

Paolo Facchinetti (2005). *Bottecchia Il forzato della strada*. Edicicloeditore.

Aldizkariak / Egunkariak

- Sprint.
- Le Parisien.
- La Voz de España.
- Irutxuloko Hitza.
- El Diario Vasco.
- Urtekaria Revue.
- Euskaldunon Egunkaria.





Ottavio Bottecchia, Jesus Loroño, Fausto Coppi, Jacques Anquetil, Eddy Merckx, Bernard Hinault, Marino Lejarreta, Miguel Indurain, Lance Armstrong eta Alejandro Valverde tropel berean. Imaginatzen duzu zer izango litzatekeen hori? Ezinezkoa da, jakina, garai ezberdinetako txirrindulariak izan zirelako. Dena dela, izen-abizen horiek guztiek badute zerbait amankomunean: denak txapeldun handiak izan ziren eta Donostian aritu ziren. Garaian garaiko txirrindularitzazaleok geure idoloak gertu-gertutik ikusteko aukera izan dugu, kasik ukitzeraino. Azken 100 urteotan Donostiatik pasatu diren ziklismoaren izarren arrastoa topatuko duzu orriotan. Batzuetan loria izan zuten zain; besteetan, miseria.

Euskal Herriko Itzulian, Donostiako Klasikoan, Espainiako Vueltan... eta baita Frantziako Tourrean ere. Sona handiko lasterketa horietan guztietan dir-dir egin zuten txirrindularitzako izen handiek. Handienek. Ekar ditzagun gogora, beraz, istorio horietako batzuk, katea ez baita eten.

ISBN: 978-84-09-49111-7



9 788409 491117